

Hezkuntza plastikoa

*Iraia Aldabe Fuente*

Kultura bisuala eta honek eragindako genero estereotipoen eragina marrazkiengan: 10 urteko haurren kasu praktiko baten analisia.

**TFG/GBL 2013**

**upna**  
Universidad  
Pública de Navarra  
Nafarroako  
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Grado en Maestro de Educación Primaria /  
*Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua*

**Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua  
Grado en Maestro en Educación Primaria**

Gradu Bukaerako Lana  
Trabajo Fin de Grado

**Kultura bisuala eta honek eragindako  
genero estereotipoen eragina  
marrazkiengan: 10 urteko haurren kasu  
praktiko baten analisia.**

Iraia Aldabe Fuente

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA  
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA  
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

---

**Ikaslea / Estudiante**

Iraia Aldabe Fuente

**Izenburua / Título**

Kultura bisuala eta honek eragindako genero estereotipoen eragina marrazkiengan: 10 urteko haurren kasu praktiko baten analisia.

**Gradu / Grado**

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

**Ikastegia / Centro**

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

**Zuzendaria / Director-a**

Nerea de Diego

**Saila / Departamento**

Educación plástica / Hezkuntza Plastikoa

**Ikasturte akademikoa / Curso académico**

2013/2014

**Seihilekoa / Semestre**

Udazkena/ Otoño

## Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluak hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituena. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarri, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak Lehen Hezkuntzako haurrek orokorrean dituzten beharrak, nahiak eta gaitasunak ezagutzeko eta ulertzeko bidea eman dit.

---

Hezitzaileok umeen ezaugarri hauek garatzeko izan behar dugun papera ulertzen eta hauek bideratu ahal izateko begirada kritikoa izaten irakatsi dit.

Didaktika eta diziplinako moduluak lan hau burutzeko ezin bestekoa zen begirada kritikoa eraikitzen lagundu dit. Hezkuntza plastikoak eskaintzen dituen komunikazioa eta adierazpen baliabide eta aukera anitzez baliatu naiz, genero berdintasuna eta kultura bisualaren eragina hezkuntzan kontutan hartzeko eta honen eragina zein den ikustarazteko.

Halaber, Practicum moduluak, laguntza eman du lan honen oinarria den analisi enpirikoa egiteko. Praktikak burutu nituen ikastetxeak bertako baliabide eta irudiekin nire ezaguera funtsatzeko eta praktikan jartzeko aukera eman dit. Practicum-a dela eta, posible izan dut nire analisia aurrera eramatea.

Beste alde batetik, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira “Introducción y antecedentes” eta “Resultados y conclusiones” atalak, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

## Laburpena

Lan honetan, 10 urteko haur batzuek sortutako marrazkien analisi bat egiten da. Lana zehazteko, kultura bisualaren eta genero estereotipoen irudikapenetan arreta jartzen da. Beraz, orain arte gai honen inguruan egindako lanak eta ikerketak aztertu eta gero eta bere ingurumena kontuan hartuta, material berrien analisiarekin hasten da. Analisi honetan sexu bakoitzeko sortze lanen arteko diferentziak konparatu dira. Haurren marrazkietan irudikatutako pertsonen itsura fisikoa eta zein ekintzak egiten dituzten aztertzen da genero estereotipoei lotuta dauden jakiteko. Sortzen dituzten lanetaz gain, jasotzen dituzten irudiak ere aztertu dira. Ikusi denez, telebistan ikusten dituzten iragarkietan eta marrazki bizidunetan adibidez, emakumearen irudia erabat estereotipatua agertzen da batzuetan. Jasotzen dituzten irudiak eta sortzen dituztenak konparatu dira eta baieztatu da kultura bisualak eragina duela. Hori horrela bada ere, eta nahiz eta egunero ikusten dituzten ilustrazioak estereotipatuak egon, beraiek sortutakoetan ez da hain agerikoa. Ondorio positiboak atera dira orokorrean genero estereotipoen apurketa ematen dela ikusi baita.

*Hitz gakoak:* Kultura bisuala; genero estereotipoak; marrazkiak; errealismoa; desberdintasunak.

## Resumen

En este trabajo se realiza un análisis de los dibujos creados por unos niños de 10 años. Para centrar el tema, se presta especial atención a la representación de la cultura visual y los estereotipos de género que crea. Para ello, se han tenido en cuenta las investigaciones y trabajos realizados hasta el momento así como el entorno de los niños que han creado los dibujos. Se analizan cuáles son las principales diferencias entre los dibujos de las niñas y los niños. Se examina la apariencia física de los personajes representados y las acciones que realiza cada uno para saber si están relacionados con algún estereotipo de género. No solo se analizan las imágenes que crean los niños, sino también las que reciben. Como se ha podido comprobar, en la publicidad o en los dibujos animados, a menudo la imagen de la mujer aparece estereotipada por lo que se han comparado con las creaciones propias y se ha afirmado que la cultura visual tiene una importante influencia en ellos. A

---

pesar de ello, los dibujos de los niños presentan menos estereotipos que las ilustraciones que ven a diario por lo que se han sacado conclusiones positivas.

*Palabras clave:* Cultura visual; estereotipos de género; dibujos; realismo; diferencias.

## **Abstract**

In this paper, an analyze of drawings created by 10 year-old children is done. To focus the work, a special attention is paid to the representation of visual culture and the gender stereotypes that creates. To do so, the investigations carried up to now about the subject as well as the environment of students have been taken into account. It is also analyzed which are the main differences between the drawings of boys and girls. The appearance of characters that are represented and the actions they make are examined to know if they are related to any gender stereotype. Not only are the images created by students analyzed, but also the ones they receive. As has been shown, in the advertising or in cartoons, the image of woman is often stereotyped so it has been compared to the own creations of students and it has been affirmed that visual culture has an important influence on them. However, the drawings of kids show less stereotypes than the illustrations that they see in their daily life, so positive conclusions have been drawn.

*Key words:* Visual culture; gender stereotypes; drawings; realism; differences.

## Índice

<b>1. Introducción y antecedentes</b>	1
1.1. Situación personal	1
1.2. Antecedentes	1
1.3. Objetivos y cuestiones	3
<b>2. Marko teorikoa</b>	6
2.1. Ingurunearen eragina	6
2.2. Adinaren araberako ezaugarri kognitiboak eta hauen eragina	9
2.3. Kultura bisualaren eragina hurrengan	10
2.4. Estereotipoen agerpena	13
<b>3. Materialak eta metodoa</b>	18
3.1. Materialen aurkezpena	18
3.2. Metodoa	21
<b>4. Analisia</b>	24
4.1. Inkestén erantzunak	24
4.2. Klasean duten eta Gabonetarako saltzen dituzten materialak	26
4.3. Marrazki librea	30
4.4. Euskal Herriko adierazpena	42
4.5. Komikiaren eta denbora librearen irudikapenen marrazkiak	53
<b>5. Resultados y conclusiones</b>	61
5.1. Resultados	61
5.2. Conclusiones	63
<b>Bibliografia</b>	
<b>Eranskinak</b>	
<b>A. Eranskina I</b>	
<b>A. Eranskina II</b>	
<b>A. Eranskina III</b>	
...	



## **1. INTRODUCCIÓN Y ANTECEDENTES**

### **1.1. Situación personal**

Este trabajo es un proceso de investigación que incorpora la recogida de información, el análisis de datos y la reflexión sobre los resultados. Para hacerlo, parto de mi experiencia en el centro escolar donde hice mis prácticas. Se centra en los niños de ese entorno, el C.P. Ermitaberri de Burlada, y de 9 o 10 años de edad. Se han utilizado los materiales y las fotografías tomadas en esa clase para poder hacer el análisis adecuadamente. Así mismo, se ha analizado los factores que podrán influir sus creaciones. Querría mencionar que mis prácticas coincidieron con la época de navidades y este hecho se ha tenido muy en cuenta a la hora de hacer todo el trabajo. He aprovechado esta situación para centrarme más en la influencia que tiene la cultura visual en el consumismo infantil. A partir de mitades de octubre comienza la publicidad de juguetes y accesorios en general y me ha resultado muy útil tanto para las encuestas como para analizar las imágenes que reciben.

### **1.2. Antecedentes**

Para dar comienzo al tema, diré que aprovechando los conocimientos que tenía de los niños durante mi practicum me interesé por la expresión plástica y quise trabajar con las creaciones de los alumnos porque me parecen un gran indicador de su manera de ver el mundo. Me he centrado sobre todo en lo que yo considero importantes factores sociales tales como la cultura visual (y todo el consumismo que lleva con él) y los diferentes estereotipos de género. Por ello, y antes de dar comienzo a este análisis, he empezado por investigar cuáles son los resultados y las opiniones de los trabajos realizados anteriormente.

El dibujo infantil comenzó a estudiarse de manera formal a finales del siglo XIX, al ser una actividad que empezaba a formar parte de la educación artística de los niños, así que psicólogos, artistas y pedagogos realizaron investigaciones al respecto, dando por resultado distintos enfoques, que posteriormente fueron retomados para la elaboración de programas académicos. Por tanto, se tienen en cuenta a algunos de

estos investigadores y mencionamos varios de sus trabajos para crear una base para nuestro propio análisis.

A parte de tener en cuenta las investigaciones anteriores para la creación de esta, también se ha dedicado un tiempo a analizar el entorno puesto que según mi opinión, es uno de los factores que más influyen a los niños. Los niños crecen aprendiendo los esquemas de la sociedad, las prácticas familiares, las normas culturales, y debemos ser conscientes de que en gran medida sus vidas serán determinadas por estos factores. La atención en el desarrollo de los niños es fundamental, para entenderlos, educarlos y prepararlos para la vida adulta. El dibujo infantil viene a ser uno de esos indicadores que nos ayudan a estimular, conocer y ayudar en su desarrollo a los niños.

El apogeo de las influencias culturales, se da entre los 7 y los 12 años de edad, el niño tiende a adoptar las características propias de su cultura, como esquemas, modelos y clasificaciones, y la característica común es la búsqueda de un realismo visual. El niño está realmente interesado en dominar los modelos, esquemas y clasificaciones propios de su cultura. Para algunos significa una pérdida total del interés por el dibujo, para la mayoría es un período en el que desean que sus dibujos se parezcan a las cosas tal y como son. El realismo visual es una propensión generalizada. Pero en este período las influencias culturales son notorias. Así como en edades anteriores podía ser difícil distinguir cuál era la procedencia cultural de un dibujo infantil, ahora los rasgos comienzan a ser inconfundibles.

Los dibujos animados que ve el alumnado, las películas, los anuncios, la publicidad en general e, incluso, algunos libros les llevan a una idea estereotipada de lo que es ser hombre y ser mujer. Tanto es así que, en Educación Primaria y también en Educación Secundaria, una gran parte del alumnado atribuye a cuestiones biológicas y naturales casi todas las diferencias entre mujeres y varones, incluso llegan a justificar la discriminación basándose en ideas biologicistas (Moreno Llaneza 2012).

El consumismo infantil es un tema candente en este momento, sobre todo en fechas señaladas como las navidades. Mediante la publicidad bombardean a los niños con imágenes de objetos que “no deben faltar” estas navidades. Se aprovechan de los dibujos animados, series, películas y en general cualquier imagen que esté de moda

para crear objetos y juguetes que llamen la atención de los niños. En mi opinión, me atrevería a decir que los niños obtienen demasiados juguetes a la vez en navidades, lo que les lleva a no llegar a utilizar demasiado ninguno de ellos. No aprecian el valor de esos juguetes y eso les lleva a apartar algunos de ellos para no volver a jugar hasta muchísimo tiempo después.



Así como la cultura visual aumenta el consumismo infantil, también influye en la imagen que se tiene del hombre y de la mujer. Tanto en la televisión como en los dibujos animados, en las películas, en la publicidad... muchas veces esa imagen está completamente estereotipada. Los niños reciben esas imágenes continuamente y aunque ellos saben que la realidad no se asemeja a esas imágenes, ¿hasta qué punto influirá en sus dibujos? De todos los fenómenos reflejados por la publicidad, el que ha acaparado mayor interés en la comunidad científica, y el que con más frecuencia ha sido objeto de denuncias y querellas ante tribunales y organismos de autocontrol publicitario ha sido el relativo a la imagen de la mujer. Es por esto por lo que se tiene muy en cuenta la publicidad dirigida a los niños, prestando especial atención en esos estereotipos de género. No solo se analiza la imagen de la mujer, sino también la del hombre. En mi opinión, hoy en día los niños son conscientes de la igualdad entre ambos sexos y durante mi estancia en el centro escolar no percibí ningún caso de desigualdad. Aún así, creo que a la hora de dibujar caerán en esos estereotipos sin darse cuenta. Pienso que aunque sepan cuál es la realidad, al dibujarla lo harán tal y como lo hacen en la televisión, diferenciando roles e idealizando las imágenes.

### 1.3. Objetivos y cuestiones

El objetivo principal de este trabajo es el de conseguir un análisis centrado en la influencia de la cultura visual y los estereotipos de género. Aunque haya muchísimos

estudios de los dibujos de los niños, generalmente están enfocados a su evolución artística y motriz. En cambio, lo que se quiere conseguir mediante este análisis, es tratar de saber hasta qué punto influye la cultura visual en ellos y qué estereotipos de género han adquirido en consecuencia del entorno en el que viven. Cómo afecta el ámbito en su manera de ser y de pensar en los niños de 4º de primaria respecto a la imagen que tienen de la mujer y del hombre, tanto sus diferencias como sus cosas en común.

A lo largo de este trabajo nos centramos en esa tercera etapa donde podremos ver las distintas influencias a las que se ven expuestos los niños entre los 7 y 12 años de edad. Sobre todo se hará hincapié en los estereotipos de género que pueden aparecer en las creaciones de los niños y en los efectos de la cultura visual en ellos. De hecho, en un mundo como el de hoy, en el que los estudios sobre las mujeres se han generalizado en universidades y centros de estudios, queremos que también en los colegios aparezca la perspectiva de género. Perspectiva que no necesita ser forzada, sino que es la forma más natural de realizar análisis de los medios de comunicación y de su importancia en la creación de un mundo simbólico en el que, todavía hoy en día, se asigna a la mujer un papel secundario, con una división del trabajo muy marcada por sexos y con una visión androcéntrica de la sociedad.

Desde luego, lo que no estamos buscando o analizando, es el resultado final como tal. El dibujo en sí no es lo que nos interesa en este momento, sino los simbolismos y los rastros de la sociedad en la que viven que y dejan huella en ellos. Luego utilizaremos estos dibujos para sacar conclusiones sobre cuáles han sido las mayores influencias que se aprecian en sus creaciones.

Muchas veces se les pide a los niños que hagan lo que se considera “buenos” dibujos. Entendemos que los “buenos” dibujos son los que tienen muchos colores, muchos detalles, hechos con cuidado, sin tachones, con objetos fáciles de identificar... Con esto, lo que se consigue es que los niños creen que el objetivo de hacer dibujos es que sean bonitos y que aparezcan cosas fáciles de identificar. Cuando los adultos preguntan a ver qué es eso que está representado en el papel, aunque en un principio no fuera nada en concreto, el niño o niña se ve obligado a buscarle forma y decir lo

primero que se le ocurre. Cuando pedimos un dibujo libre, ¿hasta qué punto son libres de dibujar lo que quieren? Es por cosas como estas por las que la imaginación a veces queda de lado. Esa realidad que expresan los niños, esta totalmente condicionada por su entorno (Aguirre 1997).

Es por todo esto por lo que para este trabajo les pedimos unos dibujos libres y otros más guiados para así poder ver si hay alguna diferencia entre unos y otros.


También nos centramos en la aparición de estereotipos de género que creo que sin duda aparecerán. Lo que interesa conseguir analizando esto, es ver hasta qué punto tienen interiorizada esa imagen de la mujer estereotipada. También se quiere detectar cuál es esa imagen estereotipada exactamente. ¿Cómo es esa mujer perfecta? ¿Qué características tiene? ¿Cuáles son sus tareas o que haceres? ¿Cuál es la diferencia respecto a los hombres? ¿También su imagen está estereotipada? Como conclusiones, intentaremos ver de dónde proceden esos estereotipos.

## 2. MARKO TEORIKOA

### 2.1. Inguruaren eragina

Haurren sortze lanak aztertzeko, lehenbizi haien inguruaren analisi bat egin beharko dugu. Izan ere joera mekanizistarentzat kanpotik estimulatzen duten neurrian erreakzionatzen eta jarduten duen makinaren modukoa da pertsona. Horrela ulertutako pertsonak ez du arrazoitu eta erabakitze berezko gaitasunik, eta kanpotik edo ingurunetik datozkion estimuluen mende dago bere garapena.

Psikologia *environmentalista* hori, gauzak ikusteko modu hori, filosofia enpiristatik eratorria da. Garapena, joera horrentzat, prozesu jarraitua da, organismoaren heltzea gertatzen den neurrian eskuratzen diren ikasketen mendekoa. Beraz, sortzen diren aldaketak kuantitatiboak dira (Pons eta Roquet-Jalmar 2005).



Ingurunearen eragina oso garrantzitsua denez, kasu honetan ingurua zein den zehaztu nahi nuen. Esan bezala, Burlatako Ermitaberri ikastetxean oinarritu naiz lana aurrera eramanez ahal izateko. Ermitaberri Nafarroako ikastetxe publiko bat da. “D” ereduarekin lan egiten du, hau da, ikasgai guztiak euskaraz lantzen dira (hizkuntz gehigarrietaz gain). Aztertuko dugun klase honetan, ikasleen familia askok euskaraz bizi dira baina gehiengoaren ama hizkuntza gaztelera da.

Espainiar estatuaren parte garenez, Espainiako egoera ere eragina du hemengo haurren gain. 2013. urtearen amaieran, duela urte batzuk hasitako krisi ekonomikoarekin jarraitzen dugu eta hau kontsumismoan eragin zuzena du eta beraz, baita publizitate eta kutura bisualean orokorrean ere. Alde batetik, haurrek

Kultura bisuala eta honek eragindako genero estereotipoen eragina marrazkiengan: 10 urteko haurren kasu praktiko baten analisia.

aurreztearen eta denboraldi txarren kontzientzia dute, baina bestalde, publizidadearen “bonbardeoa” jasotzen dute estatuaren krisiarekin amaitzeko helburuarekin. Egoera hau oso kontraesankorra da, izan ere, hurrek nahiz eta aurreztu nahi izan, telebistan edo aldizkarietan ikusitakoa lortu nahi dute.

Familiak askotan behartuak ikusten dituzte haien buruak gauza horiek erostera. Erosteke adina dirurik ez badute, haurraren arazoa suerta liteke. Sozialki onartua izatea, batzuetan ematen dugun irudiarekin lortzen da, eta alderantziz. Besteek jarraitzen dituzten modak ez baitituzte jarraitzen, arazo sozialak izan ahal dituzte. (ALONSO, FERNÁNDEZ RODRÍGUEZ eta IBÁÑEZ 2011).

Howard Gardner, psikologoa eta ikertzailea, adinaren arabera hurrek artea nola ikusten duten analisia egin zuen eta nola ikuspuntu hori aldatzen den urteak pasatzen diren heinean. Bere klasifikazioaren arabera, 10 urtetan (aztertuko dugun adina hain zuzen), errealismoaren etapan egongo ziren. Beraientzako, artea errealitatearen kopia hutsa izaten jarraitzen du sormena alde batean utziz edota desagertuz.

“Baina adin hauetako hurrek erabat literalak ziren eta artea kanpoko munduaren detaileen kopiatzearen saiakera bat bezala ikusten zuten: geroz eta zehaztasun handiagoarekin egin kopiaketa hori, geroz eta lan hobea zen beraientzat. Izan ere hamar urteko hurrek, bost urtekoek baino gaitasun gutxiago zeukaten mundu imaginarioak sortzeko. Beraiek onartzen zuten mundu honetan ikusi ezin diren gauzak margotu ahal zirela baina honen adibide bezala existitzen diren izenak esaten zituzten, hala nola, ilargia eta izarrak.” (Gardner 1993)

Bere ondorioa zera izan zen, oraindik oso txikiak direla eta horregatik dira hain errealistak. Izan ere oraindik ez dituzte gauza abstraktuak edo ikusi ezin dutena ulertu eta beraien bizitzaren etapa bat besterik ez da. Lengoiarekin antzeko zerbait gertatzen zaie. Hasiera batean, ez dituzte bigarren zentzuak harrapatzen ezta modu figurado batean hitz egiten dugunean ere hizkuntza erabat menperatzen duten arte. Horregatik beraiek sortzen dituzten irudiak ere errealistak izango dira. Sormena ez du tokirik izango haien sortze lanetan eta suposatzen dugu irudikatzen duten gehiena errealitatearen adierazpen hutsa izango dela.

Lowenfeld-ek (1947) iradoki duenez, errealitatea kopiatzen duten haurrak edo kideek ez lirateke sortzaile txikiagotzat edo disfuntzionaltzat hartu behar. Alde batetik, bere marrazkietan agertzen diren gaien interpretazio anitzak ikusarazi behar zaizkio, ahalegina eskatu eta interpretazio pertsonal eta bakarrak duen balioa ulertarazi. Beste alde batetik, haurren pintura-saiakerak aintzat hartu eta balioa eman beharko litzaieke.

S. William Ives eta Howard Gardnerrek (1984) egindako beste analisi batean, hurrek jasotzen duten influentzia kulturalen eragina marrazkien garapenean zehazteko taula sortu zuten. Bertan 3 etapa desberdin aurkitu ditzakegu, baina lehengo biak ikusiko ditugu jarraian. Lehenengo etapa patroiz unibertsalen menperakuntza lirateke zero eta bost urte bitarte ematen dena. Tarte horretan sortutako marrazkietan, ezaugarri berdinak dituzte denek nahiz eta kultura desberdinetakoak izan, hala nola, zirriborroak, marrazkiak, figurak eta objektuak. Bigarren etapa, marrazkiaren loratze etapa lirateke, bost eta zazpi urte bitartean ematen dena. Hurrek lengoaiaren bitartez, dagoeneko haien kulturen forma sinboliko nagusiak ikasi dituzte. Baita haien kulturaren arabera eta idazteko moduaren arabera, ezkerretik eskuinera, goitik behera edo alderantziz marrazten hasten dira. Beraz, eta ikerketa honen bitartez, demostratu dezakegu haien inguruak asko baldintzatzen dituztela haurrak marrazteko momentuan. Nahiz eta kontzienteki ez egin, haien egunero ikusten dutena edo gutxinaka ikasten dutena haien marrazkietan ere irudikaturik agertzen da.

Egoera hau kontuan izanda, lasai askoz baieztatu dezakegu kultura bisualak eragingo duela haurren marrazkiengan. Hasiera batean gauza negatibo bat bezala ikusten badugu ere, honi buelta bat eman ahal diogu alde ona ikusteko (Palacios A. 2006). Hori da hain zuzen ondorioetan baloratuko duguna. Izan ere eragina ukalezina bada, modu kritikiko batez landu ezkerreko, gauza positibo bat bezala ikusi dezakegu. Errealitatearen kopiatze nahi hori asetzeko, lortu dezagun errealitatea ikuspuntu errealista batetik ikustea eta jasotzen duten irudi horien aztertaile bilakatu ditzagun haurrak.



## 2.2. Adinaren araberako ezaugarri kognitiboak eta horren eragina

Aipatzekoa iruditzen zait adin horretan hurrek dituzten ezaugarri kognitiboak gaineretik gainbegiratzea, izan ere egoera sozialetan eragina du. Kultura bisualak zein eragin duen ongi aztertzeko, beraien behar esentzialak zeintzuk diren eta kultura bisualak zein papera betetzen duen jakitea beharrezkoa baita.

Hona hemen 8-10 urte bitartean hurrek dituzten ezaugarriak PONS eta ROQUET-JALMAR, "Desarrollo cognitivo y motor" -ren arabera (Pons E. eta Roquet-Jalmar D. 2005).

- Aurkaritza eta inhibiziozkoa. "Norbere buruaren kontzientzia" hartzen du, ni autonomo bat eratuz, eta bere nortasuna berresteko bestearen aurka jarri behar du: EZ esaten du, tematu egiten da, ez du obeditzen.
- Graziako aldia. "Ezkortasunezko" aldi, edo norbera berresteko aldi horren ondoren, gainerakoen afektua eta onarpenaren beharra erakusten du. Horregatik, bestearen begiradaren aurrean atsegin agertzen da, adierazpen eta jokamolde alai eta maitagarriekin.
- Ereduen imitaziozkoa. Fase horren ondoren, non beti txalotua eta miretsia izatearen helburua lortzen ez duen (eta horrek segurtasun eza sortzen dio), berarentzat garrantzitsuak diren pertsonekin identifikatzera eta horiek imitatzera jotzen du.
- Haurra autonomoagoa da. Eskolara joaten da, talde handiagoko kide bihurtzen da, eta horrek esperientzia berri eta zabalagoak eskaintzen dizkio. Analisi- eta sintesi-eragiketak egin ditzake.
- Gehiegizko kontrolak edo gehiegizko permisibitateak, etapa horretan, eragin sakona izan dezake haurraren adimenean eta bere nortasunaren osaketan.
- Ikuspegi indibidualista konkretua du.

- Gauzak ikus ditzake jada ikuspegi gehiagotatik (norberarenetik eta beste pertsona batenetik).
- Ongi eta gaizki dagoena bereizteko irizpidea nor bere beharrak asetzen oinarritzen da, oso hurbileko beste pertsonen eurenak ase ditzaten onartuta. Bada elkarrekikotasun praktiko eta konkretu bat.

### **2.3. Kultura bisualaren eragina haurrengan**

Kultura bisuala, gure existentzia moldatu egiten dituzten irudi guztien multzoa da. Gaur egungo kultura bisualaren zati handi bat (batez ere mutilentzako) super heroietan oinarritzen da, telebistan eta bideojokoetan agertzen direnak batez ere. Hala ere edozein motatako objektuetan agertzen dira irudi horiek, zerealen kutxan edota motxiletan adibidez. Gure mundua irudiz beteta dago eta irudi horiek gu kontrolatzeko boterea dute. Kontrolatzeko modurik erabilera publizitatea izango zen, irudiz betetako iragarkien bitartez (Efland 2005).


F. Hernandez-en arabera (1999), kultura bisualak honako ezaugarriak aurkezten ditu:

1. Jarrera interdisziplinatua: Artearen, arkitekturaren, historiaren, psikologia kulturalaren, antropologiaren erreferentziak hartzen ditu.
2. Organizazioa, haien esanahi kulturalen erlazioaz lortuko da.
3. Arte, Kultura, Irudia, Historia, Hezkuntza... Arloetan gertatutako aldaketak azkeneko 15 urtetan eta mediazio nozioarekin elkarlotutakoa.
4. Bere aztertze objektua, gauza materialak lirateke (objektu artistikoak) akzioz edo lanaz egindakoak. Baita gizakien irudimenaz sortutakoak helburu estetikoak, simbolikoa, rituala edo político-ideologikoa izanda.
5. Irudiak sortzen dituztenen eta jasotzen dituztenen kulturen arteko erlazioa.

6. Bere ikertzeak, bere paperaren ulermen kritiko bat eta bere funtzio soziala izan daiteke.

7. Eremu mugikorra da.

8. Objektu eta tresna asko ditu, beraz, produkzioen kalitatea analizatu beharko litzateke.



Iturria: (Hernandez 1999)

Gaur egungo gizartea kontsumismo sakon batean sartuta dagoela agerikoa da (Efland 2005). Helduok beharrezkoak ez diren gauzak erostera eta marka desberdinen presiopean ordaintzera behartuta ikusten dugu gure burua batzuetan. Hala eta guztiz ere, helduok erosi baino lehen gure ekonomiaren kontzientzia dugu eta beraz mugak jartzen dizkiogu gure buruari. Haurrek aldiz, ez dute kontzientzia hori eta beti gehiago nahi dute. Arrazoi horrengatik, kontsumista paregabeak dira. Dirua eta prezioa ez da arazoa beraientzako eta gurasoek bere nahiak asetu nahi dutenez, haurrak modaren jarraitzaile hoberenak dira.



Telebistan modan dauden marrazkien arabera mugitzen dira jostailu eta osagarri gehienak. Publizidadeaz gain, marrazki bizidunak eta haurrentzako pelikulak ere izugarritzko eragina dute haurren. Gehiengoan gustukoak diren marrazki edo pelikulekin zerikusia duten edonolako jostailu eta objektuak saltzen

dituzte. Ikasgelarako koaderno batetik, pertsonaiaren panpina bat arte (motxilak, estutzeak, musika CD-ak, arropa, poltsak, pegatinak, posterrak, mahi jolasak, panpinak, oinetakoak... eta irudia jar daitekeen edozein gauzari azken finean). Begi bistakoa da beraz kultura bisualaren eragina haurren. Ikastola batean (berdin dio zein eredutakoa edo zein adinetako haurrek) ikasle gehienak horren adibide bat dira, izan ere haien modak publizitatea eta orokorrean kultura bisualak zehazten dute.

Irudi hauek, haurrek duten pertzepzio gaitasuna, zentzumen gaitasuna eta gaitasun intelektuala gutxien dituzte. Fenomeno hau, haurren errekurtso plastikoak pobretu egiten ditu eta haurren arteko homogenizazio kultural eta soziala eragiten du. Haurren gertuko inguru kulturaletik aldentu egiten ditu errepikatutako grafiko pobreen bidez.

Hala eta guztiz ere, irudi multzo horiek guztiak, haurren garapeneraren onerako erabili dezakegu. Haurren fantasiak, desirak eta jolasak askotan jasotzen duten kultura bisualarekin lotuta daude, beraz, aprobetxa dezagun irudipen hori eta mundu sinboliko hori haien artearen garapenerako. Haurrentzako, irudia komunikazio herra mintza ezinbestekoa da baita espresatzeko modua ere. Haien sortze lanetan ere irudi horiek agertzeaz gain, haien sormen propioarekin nahasten dira. Hau beste tokietako kulturak ezagutzeko balio zaie adibidez, izan ere mundu osoko marrazki bizidunak ikus dezakete. Guzti hau kontutan izanda, pentsa dezagun zein den alde ona. Haurren kapazitatea eta abilezia kreatiboak handiagotu egiten du kultura bisualak eta ikuspuntu grafiko batetik ikusita, errekurtso plastiko desberdinekin esperimentatzeko: forma, marrazki, koloreak... (Palacios 2006)

Vygotsky-ren arabera, garapen-prozesu orokorraren barruan, kalitate aldetik desberdin diren bi garapen-lerro, ezberdinak jatorrian ere, bereizi daitezke: oinarrizko prozesuak, jatorriz biologikoak, batetik; eta, goi-mailako funtzio psikologikoak, jatorri soziokulturalekoak, bestetik. Aipatutako lerro biak txirikordatuta daude eta hortik eratortzen da haurren jokabidearen historia.

#### **2.4. Estereotipoen agerpena**

Estereotipoek gure pentsaera, hizkera, sentitzeko eta bizitzeko modua aldatzeko indarra dute. Pertsonak edota giza taldeak klasifikatzen dituen dispositibo diskriminatzaile positibo edo negatiboak dira. Nazionalistak, klasistak, erlijiosoak edo sexistak izanda nonahikoak dira, hau da edozein espazio eta momentutan erabiltzen ditugu modu inkontzientean. Edozein errealitate islatzen duten argazki finkoak eta sinpleak dira (Tomé 2007).

Haurrek jasotzen duten kultura bisual hori, estereotipoz beteta egoten da. Batez ere gizonezkoen eta emakumezkoen rola, oso markatuak daudenak. Gaur egungo gizartea, ez da duela 50 urtekoa bezalakoa. Espainiako gizarteak azken urteetan rol horiek apurtzen saiatu bada ere, oso finkatuak jarraitzen dute haurren gustuko ekintza eta jolasetan. Hurrengo irudian azaltzen den bezala, emakumeen ehuneko handia etxetik kanpo lan egiten dutela demostratzen du. Nire praktiken bitartean ikus ahal izan dudanez, haurrek emakumezkoak etxetik kanpo lan egiten dutela normalizatzen dute eta errealitatea hori dela argi badute ere rolen desberdintze horietan erortzen dira askotan. Etxeko eginbeharrak gizon zein emakumeak egiten dutela argi dute baina hala eta guztiz ere, haurrek rol horiekin ez dute apurtzen.

PROPORCIÓN DE MUJERES EN LA CONTRATACIÓN DE CADA CCAA.




Iturria: Adecco eta Adecco Fundazioa INE-ko datuetan oinarrituz.

Jasotzen duten kultura bisuala oraindik estereotipatuak direla izan daiteke horren arrazoi nagusia. Mutilentzako marrazkiak eta neskentzat direnak askotan bereizten dira. Kolore arrosa eta urdina desberdintzaile garbiak dira oraindik ere eta mutilentzako jostailuak edo neskentzat direnak baita ere. Haien marrazkietan beraz, erraza da dekorazio desberdinak aurkitzea. Neskak loreak eta kolore argiak erabiltzen dituzten bitartean, mutilek kolore ilunak eta dekorazio pobrearekin egiten dituzte. Haiek jasotzen dituzten irudiak horrelakoak badira, hori da margotzen dutena. (Pérez Camarero 2000)

Geletan sexismoaren presentzia ukaezinezkoa da eta hurrek eguneroko lanetan egindako marrazkiak behatuko bagenu, rol sexualen banaketa oso goiz gertatzen dela baieztatu genuke. Neska edo mutil identifikazio goiztiar honen arabera, norberak bere buruarentzat egokientzat hartzen dituen aktibitate eta portaerak erabakiko ditu; jostea edo borrokatzea, praktikak edo gonak eramatea, ile luzea edo motza eramatea... (Erriondo 1991)

Estereotipo horiekin akabatzea oso zaila da, izan ere telebista eta publizitatea ezin dugu kontrolatu. Hurrek ikasi dute teorikoki gizonezkoek eta emakumezkoek berdinak garela eta rolekkin akabatu behar dugula baina jasotzen duten informazioa bestelakoa baldin bada, ezinezkoa da horrekin amaitzea. Gehienetan hurrek pentsatzen dutena eta adierazten dutena ez datoz bat. Normala den bezala, horrelako eragin izugarria izanda, hurrek sortzen dituzten marrazkietan, estereotipo horien agertzea ez da batere harrizkoa.



Iturria: EPA-G.2C. Tasas actividad. Mujeres

Emakumearen irudia erabat estereotipatua agertzen da gure kultura bisualean. Horrek hurren emakumearen ikusmoduan eragiten du. Gainera, gaur egun jostailu eta orokorrean haurrentzako objektuetan kultura bisual horren irudiak agertzen direnez, horren zabalkuntzan parte hartzen du. Monster High panpinak adibidez (Barbie-ren ondorengoak) irudi erabat estereotipatua ematen du. Adibidez Beatriz Gimeno esaten duen bezala, “Kultura bisual batean bizi gara non emakumearen gorputza aldatu nahi duten gizonezkoen fantasien arabera” (Gimeno 2013).



Guraso gehienek, marrazki bizidunak (edo haurrek jasotzen duten edozein irudiak) ikusten dituztenean, ez dira kontziente genero estereotipoen agertzeak dauden ala ez. Ohitutak daude horrelako irudiak jasotzera eta ez dute ikuspuntu kritiko batetik ikusten. Sevillan egindako ikerketa baten ondorioa hau ondoko hau izan zen: 10-12 urte bitarteko ikasleei gaur egungo serie batzuen kapituluak jarri zizkieten gero horiei buruzko galdera batzuk egiteko. Inkestatuen %23'6a eraso sexistaren bat ikusi zuen. %58'3 ez zuen inolako eraso sexistarik ikusi eta %15'6 bakarrik batzuetan gertatzen dela erantzun zuten. Hala eta guztiz ere, okerrena da, haurrek beraiek bizitza errealean emakumearekin biolentziaz jo behar dutela diote hark berarekin desobedientea bada. Mutilen %14'5 eta emakumeen %5'6a hain zuzen ere. (Sánchez-Labela 2013) Ikerketa hori kontutan izanda, kultura bisualaren eragina haurrengan argi dago eta horren ondorioz genero estereotipoen finkatzea ere.

Esan bezala, eguberrietan publizitatea eta kontsumismoa biderkatzen da. FUCI-ren (Federación de Usuarios Consumidores Independientes) ikerketaren arabera ("EFE Practica Español" en atalean ikusgai), 2013an 514€ gastatuko du batz besteko pertsona bakoitzak. Hauetako 163€ jostailuetan eta oparietan erabiliko dira. Hala eta guztiz ere, 2008an baino 300€ gutxiago gastatuko ditugu pertsona bakoitzeko.

Eguberrietan beraz jostailuen eta antzekoen iragarkiak momenturo ikusten dituzte. Hemen generoen arteko desberdintasunak argiak dira. Neskentzako iragarkiak melodiadunak eta lasaiak izaten dira normalean. Mutilei bideratutako iragarkiak berriz, azkarrak eta aktiboak. Neskentzako jolasak edo produktuak, amak izateko influentziatzen dituzte sukaldeekin jolasten duten bitartean edo mutilei gustatzeko makillatzen diren bitartean. Mutilentzakoak berriz, agresiboak eta dardaratsuak dira haien indarra eta erasotzeko gogo goraipatzeko. (García González, Calleja Valls 2006)



Horrelako publizitatea jasan eta gero, ze haurrek aukeratuko dute kontrako sexuarentzako diren jostailuak? Mutil batek ezin da sensiblea eta lasaia izan? Eta neska bat aktiboa eta dinamikoa? Neskak kolore argiz dekoratutako iragarkiak edota aldizkariak begiratzeko bideratuak daude eta mutilak berriz kolore potenteagokoak. Ardi talde bat balira bezala gidatzen dituzte haurrak horrelako jokabideekin. Askoz errazagoa da esanezko haurrak hezitzea arazo gutxiago suertatuko dutelako. Molde batez eginak bezala balira, eramankorragoak izango dira denak eta beraz, lan gutxiago beharko dute (Efland 2005).

### 3. MATERIALAK eta METODOA

#### 3.1. Materialen aurkezpena

“Antecedentes” atalean (1. orrialdean) ikusi dugun moduan eta Howard Gardnerrek zioenaren arabera, aztertzen diren hamar urteko haurrek, errealismoaren etapan daudenez (garapen artistikoari dagokionez) ikusitakoa marrazteko nahia dute. Errealitatea haurrarengan finkatzen da eta kreabilitatea ez da hain garrantzitsua izango. Ezaugarri nagusiak markatzen ditu eta detailearen kontzeptua bereganatzen du. Espazioa hobetzeko markatzen du eta gertuagoa dauden objektuak ere handiagoak egiten ditu. Kolore tonu desberdinak erabiltzen hasiko da. Hau dela eta, erabaki nuen eskatzen nien materialen gaiak zehaztea haien inguruko islada ziren marrazkiak sortzeko.

Jarraian, material guzti horien zerrenda azaltzen da:

- **Haurrei egindako galdera sorta:** Haurrek jasotzen duten kultura bisualaren irudietatik zeintzuk dituzten gustukoak jakiteko helburuarekin, galdera sorta bat pasatu nien. Galdetegi motz honetako galderak hauek izan ziren:

Zein marrazki ikusten dituzu gehiago telebistan?


Egunero zenbat orduz ikusten duzu telebista? Zein orduetan?

Marrazkiez gain, zer gehiago ikusten duzu normalean?

Zein pelikula duzu gustukoak?

Zer eskatu diozu Olentzerori?

- **Ikastoralara eramaten duten materialen argazkiak:** Egunero erabiltzen zituzten arropak edota materialak zeinak kultura bisualaren adierazle argiak dira.



- **Gabonetarako bidalitako iragarkien argazkiak:** Etxera bidaltzen dituzten iragarkien irudiak dira. Kultura bisualetik jaiotzen diren jostailuen adibideak hain zuzen ere.



- **Marrazki librea:** Bestalde, marrazki erabat librea eskatu zaie. Hemen gaia ez zen zehaztu baina eguberriak gainean dituztenez, honi buruzko marrazkiak aurkituko ditugu. Hala eta guztiz ere, marrazki librearekin, haurrek haien ideiak espresatzeko askatasuna izango dute eta estereotipo eta kultura bisualaren arrastoak aurkitzea errazagoa izango da.



- Euskal Herria haurren ikuspuntutik:** Marrazki batzuk egitea eskatu nizkien. Gaia nolabait zehazteko, Euskal Herria nola ikusten zuten marraztea eskatu nien, izan ere horrela errazagoa izango da desberdintasunak aztertzea eta lantzea. Nik esandakoa zera izan zen, marrazkiak beraiek nahi zutenaz egin ahal zutela eta helburua politak izatea ez zela. Askatasuna zuten gai horren barruan gehien interesatzen zitzaiena marrazteko baina dirudienez gaia zabalegia zen beraientzat eta zehaztasunak eskatu zituzten. Ni ez nuen adibiderik jarri nahi denek marrazki berberak ez egiteko baina haien irakasleak hori bera egin zuten. Gauza kulturalak edo euskararekin zerikusia zutenak gomendatu zien eta beraz, gehiengoek hori bera egin zuten. Gainera politak izatea eskatu zien eta beraz marrazkiaren helburua aldatu zen, herriaren adierazleak izatetik, helburu estetiko bat izatera.



- Amerindiar baten komikia:** Klasean egin beharreko lan gidatu baten marrazkiak erabiliko ditut. Hemen lan gidatua izan zenez, gaia nahiko zehaztua egon da. Komiki bat izatea ere zehaztua zegoen. Zehazki eskatu zitzaiena, istorio bat asmatzea izan zen, non Amerindiar bat agertu behar zen. Haien sormena

aktibatu behar izan zuten hemen, izan ere edonolako istorioak kontatu ahal zituzten indio bat bertan integratuz. Mota askotako emaitzak agertu ziren eta hemen egingo dugun analisisan, biolentzia eta batez ere marrazki bizidunen eragina aztertuko dugu.



- **Haien denbora librean zertan erabiliko zuten adieraztea eskatzen zien lana:** Klaserako eskatu zieten marrazkiak dira. Hurrak haien denbora librean zertan erabiliko zuten margotu behar zutelarik.



### 3.2. Metodoa

Marrazki guzti hauek analizatzeko, hainbat puntutan jarriko dugu arreta. Galdera batzuen bitartez zehaztuko ditugu jarraian:

- Nor irudikatzen dituzte haurrek marrazkietan? Emakumeak, gizonak edo talde mistoak dira? Neskek egindako marrazkietan emakume gehiago agertzen dira?

Eta mutilenetan? Pertsona gazteak, nerabeak, helduak edo haurrak agertzen dira?

- Nork du protagonismoa? Irudi batean, protagonista planoan hartzen duen garrantziarengatik (tamaina, jarrera...) identifikatu ohi da. Zein frekuentziarekin agertzen dira gizonak bakarrik eta emakumeak bakarrik? Zeinekin banatzen dute protagonismoa gizonek? Zeinekin emakumeak?
- Emakumeak eta gizonak irudikatzeko zein irudi mota erabiltzen dira? Irudi errealistak, marrazkiak, marrazki eskematikoak...
- Irudikatuak izan diren gizon eta emakumeen irudi fisikoa, haien adierazpena, espresioa eta nolakotasunaren azterketa; ze arropa mota daramate, aldaera desberdinak agertzen dira edo estereotipatuak dira? Espresioan sentimenduak islatzen dira (Oldarkortasuna, lasaitasuna, gozotasuna...)?
- Adina, klase soziala, etnia, gaitasun fisiko eta intelektual desberdinek eskaintzen duten emakume eta gizon aniztasuna irudikatzen da?
- Pertsonai maskulino eta femeninoak agertzen diren testuinguruari erreparatuz, etxean edo lan ordaindu bat egiten ari da? Beste pertsona bat zaintzen dago? Aisialdi gune batean agertzen da pertsonaia?
- Emakume eta gizonek garatzen dituzten ekintzak: lehenengo ekintza jakina bereizten da (irakasten ari da, kotxe bat konpontzen ari da, egunkaria irakurtzen ari da, erosketak egiten ditu, haurra eskolara eramaten du, etxea garbitzen du...) eta ondoren egoera edo ekintza hauek klasifikatu egiten dira (tradizionalak edo ez, manualak edo intelektualak, lana edo aisia...)
- Sinboloren bat irudikatu dute? Sinboloak mota askotakoak izan ahal dira baina guri interesatzen zaiguna, kultura bisualarenak izango dira.
- Sinboloren bat agertzekotan nola daude eginak? Errealistak al dira? Zer nolako garrantzia dauka marrazkian? Zein testuingurutan dago?

- Marrazkiek apaindura asko dituzte orokorrean? Detaile askorekin? Zein kolore erabili dute gehien (aipagarria baldin bada)? Emakumezkoen marrazkietan egindako apaindurak gizonezkoek egindakoen berdinak dira? Desberdintasunik badago, zeintzuk dira agerikoenak?

Galdera hauen bitartez, genero estereotipoen azterketa egingo dugu bai eta kultura bisualaren aztarnak agertzen diren ala ez.

## 4. ANALISIA

Analisiarekin hasteko, lehenbizi, pasatutako inkesten erantzunak aipatuko ditugu gero marrazkietan jasotakoarekin ondorioak atera ahal izateko. Inkestaren helburu nagusia, jasotzen duten kultura bisualaren eraginaren kontzientzia hartzea izango liriteke. Honen bidez, marrazkietan egingo duten irudikapenen analista eta gero, kultura bisual horrekin harramantzen den jakin ahalko dugu. Beraz, hasteko inkesten erantzunak ikusiko ditugu eta jarraian, klaseko materialen azterketa txiki bat ere. Gero jasotako marrazkien eta irudien analisia egingo dugu. Hau guztiarekin amaitzerakoan, analisiaren atala ondorioekin jarraitu ahal izateko.

### 4.1. Inkesten erantzunak

Inkesta guztien datu gordinak ez jartzearren, erantzun guztien laburpen bat egin dut. Hala ere, erantzun guztiak eranskin bezala atxikituta dago (ERANSKINA ?).

**Zein marrazki ikusten dituzu gehiago telebistan? galderari, zera erantzun dute:** Nesken eta mutilen arteko desberdintasun nabaririk ez da somatzen. Disney Chanel-eko edo haurrentzako besterik ez diren beste kanaletako marrazki bizidunak dira gehienak.



**Egunero zenbat orduz ikusten duzu telebista? Zein orduetan?** Hemen, desberdinketa txiki bat egin ahal da mutilen eta nesken artean. Galdetutako mutilei orokorrean ordu erdia eta ordu bat bitarte ikusten dutela esan dute eta nesken kasuan, gehiengoek ordu bat eta bi ordu artean. Hala ere ez dut uste sexuen araberako arrazoi bat denik baizik eta eskolaz kanpoko ekintzen kopuruaren araberakoa.

**Marrazkietaz gain, zer gehiago ikusten duzu normalean?** Haurrentzako programak dira gehienak. Hala ere, mutilek helduentzako diren saioen bat gehiago ikusten



dituztela nabaritu dut. Erakargarriak egiten zaizkie “La que se avecina” moduko serie komikoak.

**Zein pelikula duzu gustukoen?** Sexuen arteko diferentziarik nabariena hemen izan da. Mutil gehienak haurrentzako pelikulak aukeratu badituzte ere, Disney-eko moldetik aldentzen direnak aukeratu dituzte. Neskek berriz, nahiz eta salbuespenak nabariak izan, gehienak Disney-eko pelikulak aukeratu dituzte. Gainera, neska askok, nerabearentzako sortutako pelikulak ikusten hasten dira. Pelikula mota hauek, orokorrean, mutilek ez dituzte gehiegi maite maitasunezko gaia edota nesken bizitza islatzen duten pelikulak izaten direlako.



**Zer eskatu diozu Olentzerori?** Proporzionalki, mutilek gauza kopuru gutxiago eskatu dituzte neskek baino. Gainera, haien eskaerak indibidualki jolasteko edo disfrutatzeko dira. Hemen bai argi ikusten dela neskentzako pentsatuak diren jostailuak eta mutilentzako direnak oso desberdinak direla. Nahiz eta denetarik egon, mutilek bideojoko, patinak edo pistola antzekoak eskatzen dituzten bitartean, neskek mahaijoko, panpinak edo antzekoak eskatzen dituzte. Geroago ikusiko dugun bezala, iragarkiak markatzen dute zein sexuarentzako diren eta beraz, zaila da kontrako sexuarentzako saltzen duten zerbait eskatzea.



#### **4.2. Klasean duten eta Gabonetarako saltzen dituzten materialak**

Gaur egun, moda asko eta marka desberdin asko ezagutzen ditugu. Arropen diseinadoreen marka garestiak, kirolean zehazten diren arropen eta osagarrien markak, haurrentzako espresuki sortutako modak... Orokorrean azkeneko moda hauek momentuko kultura bisualaren arabera aldatzen joaten dira egoera desberdinetara moldatuz. Esan bezala haurrentzako pentsatutako modak sortzen dituzte, bai arropak egiterakoan, osagarriak egiterakoan eta baita irudiak jarri daitezkeen edozein motatako gauzei ere. Haurrek moda horiek jarraitzeaz gain, helduentzako moda eta marka horiek ere erabiltzen dituzte maiz, batez ere kirolean espezifikatutakoetan. Helduentzako kirolen inguruko marka horien artean ezagunenak direnak hauek dira: Rip Curl; Carhartt; DC; Adidas; Quiksilver eta antzekoak lirateke gizonentzako arropen kontuan. Emakumezkoen kasuan ezagunenak hauexek dira: Roxy; Loreak Mendian; Desigual...

Esan bezala, hauentzako sortutako modak kultura bisualaren menpean egotez dira eta marrazki bizidunen irudiak dira gehien erabiltzen direnak edozein produktuetan txertatzeko. Momentu honetan gehien saltzen diren irudiak hurrengoak dira: Monster High; Pepa Pig; Bob Esponja; Barbie; Transformers; Dora Exploradora; Violetta eta edozein super heroi orokorrean. Nahiz eta sexu jakin batentzako ez ekoiztu, desberdintasunak egiten dituzte saltzeko momentuan. Emakumeentzako eta gizonentzako atalak bereizten dira askotan iragarkietan. Sexu jakin bateko haurrak agertzen dira objektu horiekin jolasean edo kolore bereizgarriekin apaintzen dituzte, bai objektua bera eta baita iragarkiaren atzealdea ere. Hau objektuen salmenta baldintzatzen du, izan ere haurrek jasotzen dituzten irudien seinaleek bideratzen dituzte. Honen adibide argi bat jartzeko, eguberrietan etxe guztietara bidalitako aldizkari baten irudiak jarriko ditut.

**GRATIS LAS GAFAS VISION GEAR AL COMPRAR REBELLE GUARDIANA**

**Nerf Rebelle Guardiania**  
Diviértete con el nuevo lanzador Rebelle, con atractivo diseño en forma de arco. Con capacidad para 6 dardos.  
24,81€

**Elite Stryfe**  
Nuevo lanzador de sistema clip semi-automático. Incluye 6 dardos de regalo. Alcance más de 20 m.  
22,39€

**Elite Rough Cut**  
El lanzador Rough Cut te permite lanzar 3 dardos a la vez. Capacidad para 6 dardos. Alcance más de 20 m.  
23,60€

**Elite Rapidstrike**  
¡Totalmente automático! Con un increíble diseño. Incluye clip con capacidad para 18 dardos. Alcance más de 20 m.  
39,95€

**Bicicletas Infantiles 14" Nancy o Speed Racing**  
49,95€

Hemen ikusi ahal dugunez, nahiz eta bi kasuetan produktu berdina saldu, neskontzako edo mutilentzako dena bereizten dute kolorearen edo iruditzoen bitartez. Gainera, pistola horien kasuan, zein sexuarentzako den argi gelditzeko, nesken eta mutilen irudiak erabiltzen dituzte, orrialde batean emakumeak eta bestean gizonetzkoak.

**Hot Wheels**  
Regalo de este pack con la compra de más de 30€ en los artículos de esta página. Promoción válida del 01/11 al 30/11.

**Superbrazo Rotativo**  
Al tocar la pista, el coche puede girar el cuanto más llegar adonde quieras, ¡para que puedas ir controlando el trayecto! ¡Además tiene los tiempos y marcas fuera de la pista!  
44,17€

**Ataque del T-Rex**  
¡Puede saltar y atacar a todos los coches!  
27,83€

**Superspack Construye tu Pista**  
Con los trazos de pista, conectores, curvas, saltos, frenadas y una salida para realizar carreras de una contra otra, se pueden crear pistas sencillas y complicadas.  
24,20€

**Rapid Fire Ballistics**  
Al disparar los vehículos se hacen los coches volar en todas las direcciones.  
30,25€

**Vehículos Hot Wheels**  
Coleccionables  
1,95€

**Pista Triple Looping**  
Con 3 curvas, tres propulsores y una enorme zona de frenado, ¡el ganador de la carrera gana!  
55€

**Scalextric**  
**Scalextric Compact Crazy Race**  
Longitud de pista 6 m.  
59,95€

**Scalextric Compact Loopinator**  
Longitud de pista 6 m.  
69,95€

**Scalextric Original GT Racing**  
Longitud de pista 3,5 m.  
89,95€

**Scalextric Original Rally Experience**  
Longitud de pista 3,20 m.  
119,95€

**Barbie**  
**Casa Barbie de la Playa con Muñecas**  
¡Este casa de la playa es impresionante y se transforma en una piscina con piscina para jugar. Incluye 2 muñecas Barbie, 2 muñecas Ken y un conjunto de la parte de arriba de un bañador.  
49,99€

**Ken Palabras Mágicas**  
Ken dice frases de la parte de la boca, se le dicen palabras perfectas que todos desearían.  
26,74€

**Barbie Mil Ojos**  
Puedes decorar, colorear y adornar sus vestidos para crear nuevas formas de moda. ¡Crea una muñeca Barbie única!  
22,03€

**Barbie y Raquelita Palabras Mágicas**  
¡Escucha voces y sonidos que se reproducen con sus dulces voces!  
30,25€

**El Armario de Barbie**  
¡Cuanto más ropa de Barbie y Ken de las muñecas, más cosas puedes hacer con ellas!  
35,70€

**Peinados de Color**  
¡Diseña con colores y ganchos la preciosa melena de Barbie!  
20,95€

**Muñecas Concerto Monster High**  
Al tocar las pistas, ¡salta y suena VHS para bailar y cantar en los escenarios de los escenarios de los escenarios!  
16,95€

**Muñecas Una Fiesta Divina de la Muerte**  
¡Sus muñecas son ¡muñecas vivas!  
19,95€

**Famita Sordidos Terrorificos**  
32,07€

**Diario Monstruoso Monster High**  
32,07€

**Muñecas Más Vivas que Muertos**  
¡Vivas más que nunca! ¡Vivas más que nunca! ¡Vivas más que nunca! ¡Vivas más que nunca!  
26,62€

**Proyector Monster High**  
Con efectos especiales de colores. ¡Crea una fiesta de colores!  
31,99€


Hauek, aldizkari osoan zehar aurkitu daitezkeen orrialdeak dira. Mutilentzako atala eta neskontzako atalak desberdinak daude kolore desberdinen bitartez. Mutilek kolore laranja eta neskek kolore arrosa. Horretaz gain sexu bakoitzarentzako saltzen diren produktuak desberdinak dira kasu honetan. Neskontzako panpinak (Monster High eta Barbie), eta mutilentzako kotxeak (Scalextric eta Hot Wheels).

Berdintasunez jokatzeko duten adibide bakarra aurkitu dut aldizkari osoan zehar. Sukalde batekin (normalean emakumezkoari atxikitzen zaion lana) agertzen dira neskato eta mutil txiki batzuk.



Hemen ikusi dezakegunez, nahiz eta desberdintasun horrekin akabatzeko joera bat egon (sukaldearen adibidean neska eta mutil bat agertzen dira elkarrekin jolasean), beste irudi guztietan sexuen arteko diferentziak oso markatuak daude.

Hurrek klasean dituzten material batzuk, moda hauen adierazle garbiak dira. Jarraian ikusiko ditugun irudietan eguneroko bizitzan erabiltzen duten materialak agertuko dira.



Roxy markak duen produktu gutxi batzuen adibideak.



Monster High panpina famatuen irudietatik jaiotako produktu batzuen adibideak.



Mutilen kiroletako arropak egiten dituen markaren adibidea da Quiksilver.

Ikusten denez, Monster High, Roxy eta Quiksilver-en objektuak dira gehien agertzen direnak. Konturatu naiz gizonezkoen kasuan, kultura bisualetik sortutako objektuak ez dituztela gehiegi maite. Nahiago dituzte kiroletan zehaztutako moda horien jarraitzaile izatea, batez ere hamar urtetik gorako haurrek. Hamar urtetik beherakoek ordez, askotan marrazki bizidunen ilustrazioak daramaten objektuak erraz aurkitu ditzakegu. Emakumezkoen kasuan berriz, helduagoak izan arte erosten dituzte kultura bisual horretatik jaiotako materialak. Hala ere, txikitatik dira bi moda mota horien jarraitzaileak orokorrean.

Nire inguruko haurrak behatzerakoan, Monster High, Roxy eta Violettaren irudiak ikusten ditut maiz emakumezkoen kasuan. Gizonezkoetan aldiz, Quiksilver, Adidas, Spierman eta Bob Esponja dira irudirik erabilienak. Klase honetan ere antzeko markak

eta irudiak ikusi ahal ditugu. Beraz, esan ahal dugu ez dela klase bakar baten egoera, baizik eta gutxienez gure inguruko eskoletan ematen dena. Moda hauek adin eta inguru anitzetan ematen da, izan ere estatu osoko haurrek jasotzen dute publizidade eta orokorrean kultura bisual berdina.

### **4.3. Marrazki librea**

Marrazki librearen lanen analisia egingo dugu jarraian. Hau egiteko, lehen aipatutako galderetan oinarrituko gara.

**Nor irudikatzen dituzte haurrek marrazkietan? Emakumeak, gizonak edo talde mistoak dira? Neskek egindako marrazkietan emakume gehiago agertzen dira? Eta mutilenetan? Pertsona gazteak, nerabeak, helduak edo haurrak agertzen dira?**

Marrazki librea denez, haurrek nahi zuten guztia irudikatzeko askatasuna zuten. Askotan gizakiak agertzen badira ere, ez da beti horrela izaten. 18 lanetatik, seik bakarrik irudikatu dituzte gizakiak, beste lauk animaliak edo objektu batzuen pertsonifikazioak marraztu dituzten bitartean. Beste guztiek izaki bizigabeak dira. Gizakiak irudikaturik dauden marrazki guztien artean ez da talde misto bat ere ageri. 18 marrazkietatik neska bakar batek marraztu kontrako sexuaren pertsonaia bat. Beste guztiek haien sexu bereko pertsonaiak edo gizakien adierazpenik gabe egin dituzte haien lanak.

Ageri diren gizaki guztiek adin berekoak dira salbuespen bakarra egonda. Gutxi gora behera denek hamar urte inguruko haurrak dira. Ez dago inolako adin aniztasunik. Astronauta den mutila ere haurra da eta baita surflariak ere. Gehienez, grafitilaria nahiz eta gaztea izan, adin gehiagokoa dela pentsa dezakegu. Horretaz gain, salbuespen bakarra klase baten irudikatu duen irakaslea izango litzateke. Emakume hau helduagoa dela jakin dezakegu bere jarrera eta tamainarengatik.

**Nork du protagonismoa? Irudi batean, protagonista planoan hartzen duen garrantziarengatik (tamaina, jarrera...) identifikatu ohi da. Zein frekuentziarekin**

**agertzen dira gizonak bakarrik eta emakumeak bakarrik? Zeinekin banatzen dute protagonismoa gizonak? Zeinekin emakumeak?**

Marrazki hauetan, protagonismoak ez du beti haurrak. Batzuetan elur panpinak edota animaliak daude lehenbiziko planoan. Adibidez, irakasle eta ikaslearen kasuan, nahiz eta irakaslea handiago izan, haurra dago lehenbiziko planoan. Berak hartzen du protagonismoa. Astronautaren kasuan adibidez, lehen planoan agertzeaz gain, handiena ere bada. Marrazki honetan tamainak garrantzi handia dauka, izan ere ilargia beste planetak baino handiagoa da nahiz eta atzeko planoan egon.

Kontrako adibide bat jartzeko, elur panpinen irudian hainbat plano agertzen dira. Adibidez lehen planoan eraikin bat agertzen da eta beste aldean 2 neska pinu batekin. Eraikina beste irudiekin kanporatuz, ez dago proportzionaturik, izan ere haurrak handiagoak dira. Hauen guztien gainetik, elur panpinak daude, zeintzuk paperaren erdialdean agertzen dira eta beste irudiak baino handiagoak. Beraz, elur panpinak agertzen dira protagonistatzat, neskak bigarren planoan eta eraikina azken postuan. Batzuetan, emakumeak edo gizonak agertzen dira bakarrik baina gehienetan animalia edo beste irudi pertsonifikatuekin daude irudikatuak. Gizakiak bakarrik: Hiru. Gizonak + Animaliak edota pertsonifikazioak: Hiru. Animaliak edota pertsonifikazioak: Zortzi. Soilik izaki bizidunik gabe: Lau.

**Emakumeak eta gizonak irudikatzeko zein irudi mota erabiltzen dira? Irudi errealistak, marrazkiak, marrazki eskematikoak...**

Gizakiak irudikatzeko marrazkiak erabiltzen dituzte. Marrazki eskematikoak behin agertzen dira, oso urruneko jendea irudikatzeko. Irudi errealistak egiteko saiakerak daude adibidez: Grafitalariaren marrazkian atzetik ikusten zaio eta mugimendua adierazte saiatzen da. Bere postura nahiko errealista da eta daraman jantziak ere benetakoak dirudite. Beste adibide bat irakasle eta ikaslearena izango lirake hemen, nahiz eta proportzioak ez menperatu, haurraren jarrera oso naturala da eta irakasleak ere mugimenduan dagoela ematen du. Hala eta guztiz ere, bere oinak oraindik aldeetara zabalik irudikatzen ditu eta emakumea denez takoiekin marraztu du beti hurrek irudikatu duten moduan. Bere sudurra ere modu eskematikoan adierazi du,

baita begiak ere. Beraz, esan dezakegu marrazki errealistak egiten saiatzen ari direla baina oraindik estereotipoz eta eskemaz beterik daudenak egiten dituzte.

Surfisten marrazkian, eskema eta estereotipo asko agertzen dira ere. Olatuak, kaiok eta palmondoak, oso modu eskematikoan eginak daude, marra sinple batez adierazita. Nesken irudiak ere marra eta forma geometriko sinpleekin eginak daude ( ilea, ahoa, begiak...) Surf taula hartzeko keinua ere ez du egiten, bere buruan apoiaturik dago besterik gabe. Astronautaren kasuan ere bere burua oso eskematikoa da, bere ilea 4 marrekin adieraziz adibidez.

**Irudikatuak izan diren gizon eta emakumeen irudi fisikoa, haien adierazpena, espresioa eta nolakotasunaren azterketa; ze arropa mota daramate, aldaera desberdinak agertzen dira edo estereotipatuak dira? Espresioan sentimenduak islatzen dira (Oldarkortasuna, lasaitasuna, gozotasuna...)?**

Emakumezkoak: 6 emakumeetatik, 3 ilehoriak dira eta beste bik ile marroia. Azkenekoak ez dauka ile koloredunik. Irakaslea, emakumezko bakarra da gona eramaten duena eta arrosa kolorekoa. Oso irudi estereotipatua da hau. Ile kizkurra eskematikoki adierazita eta gona " tipikoa " jantzita daramala. Horretaz gain, besteak prakak daramatzate surfistak kenduta. Hauek bikini daramate nahiz eta haurrak adin horretan goiko parte ez daramate.

Gizonezkoak: 5etik 4 k ile oso motza edo erdi burusoil agertzen dira. Horretaz gain haien arropak ez dauka gehiegi aipatzekorik, grafitilariak adibidez modan dagoen bisera darama eta elurretan dagoen mutila txano bat darama. Emakumezkoak ez dute txanorik nahiz eta elurretan egon. Astronautaren kasua, agertzen diren biek gizonezkoak dira. Betidanik astronautak gizonezkoen lanbidea izan da eta haur honek hori adierazi du.

Guzti hauen adierazpenei dagokienez, esan beharra dago nahiko adierazkorrak direla 11tik 5 irribarretsu agertzen dira. Oso eskematikoki egiten dute, marra kurbatu batez adierazita, beraz ez dira oso esanguratsuak. 6 emakumeetatik 5 irribarretsu agertzen dira eta azkenekoa haserre. Elurretan dagoen mutila berriz, hotza duenaren aurpegia



adierazten du. Marra goraberatsu sinple batekin adierazi du baina ongi betetzen bere adieraztearen helburuarekin. Astronautek harrituaren aurpegia dute ahoa zabalik dutelarik. Mahaiaren azpian dagoen mutila beldurraren aurpegia adierazten du. Ahoa modu arraro batez egin du sentimendu hori adierazteko nahian. Azkeneko mutila, bizkarra ematen agertzen denez, ez dakigu zer sentitzen zuen momentu horretan irudi horrek. Beraz eta ondorio moduan, 6 emakumetatik, 5 irribarretsu eta haserre dagoen bat margotu dituzte. 5 gizonetatik berriz, harrituaren aurpegia duten bik daude, beldurra eta hotza adierazten dute. Azkenekoari aurpegia ez diogunez ikusten ezin dugu jakin zer adierazten duen. Beraz emakumezkoek gehienetan pozik dabilzan bitartean, gizonezkoek emozio desberdinak sentitzen marraztu dituzte.

**Adina, klase soziala, etnia, gaitasun fisiko eta intelektual desberdinek eskaintzen duten emakume eta gizon aniztasuna irudikatzen da?**

Adina bereko haurrak irudikatu dituzte orokorrean. Irakaslea helduagoa dela argi dago eta grafitilaria adibidez, besteak baino zerbait zarragoa dela esan dezakegu. Izan ere arroparengatik eta egiten ari den ekintzarengatik ez da 10 urte inguruko haur bat izango. Neska surflariak aldiz, nahiz eta helduagoen ekintza bat egin 10 urteko neska dira berak udan surf egin zuela kontatu zigulako eta bere burua irudikatu zuela badakigulako. Inklusio astronauta den mutila haurra da, 10 urte ingurukoa berriz ere. Horrela irudikatzen du berak etorkizuna, haurrak espaziora joaten eta txundituta gelditzen estralurtarrek jolasten duten bitartean. Beraz, gehiengo haurrak dira, gutxi gora behera adin berekoak gainera, irakasle heldu bat eta mutil gazte bat.

Denak etnia eta kultura berekoak marraztu dituztela argi dago: ( zergatiak + estralurtar indioak ) Gehiengo ile horiak dira eta begiak batzuetan borobil borobilak dira. Hurrek inguruan ikusten dutena marrazten dute, ikastola, Atarrabian duten grafitia, elur panpinak eta pinuak Gabonak gainean dituztelako...Agian, nire suposaketa bat da, haien klasean beste kultura bateko haurrak baleude, marrazkietan ere agertuko lirateke. Hala ere, ikasle baten lanean indiar estralurtar batzuk agertzen dira. Indioen agerpena ez da harritzekoa, klasean landu zuten azkeneko gaia Amerika izan zelako eta amerindiarren historia presente zutelako. Hala eta guztiz ere beste etnia bateko jendea

irudikatu izana txalotzekoa da. Izan ere, marko teorikoan azaldu dudan bezala, adin honetan errealismoaren garaian daude eta ikusten dutena kopiatzen dute haien marrazkietan eta baita beraien burua ere nahiko egozentrikoak direlako oraindik. Denak klase sozial berekoak irudikatu dituztela esan dezakegu, baita fisikoki eta intelektualki atzekoak ere. Ez da aniztasun handirik nabaritzen.

**Pertsonai maskulino eta femeninoak agertzen diren testuinguruari erreparatuz, etxean edo lan ordaindu bat egiten ari da? Beste pertsona bat zaintzen dago? Aisialdi gune batean agertzen da pertsonaia?**

Lanean agertzen diren pertsonaiak margotu dituzte, hala nola: irakaslea, astronauta eta lanbide bat izatekotan grafitilaria. Grafitilaria aisialdian egiten dena bezala hartzen badugu, 2 pertsonak agertzen dira lanean marrazkietan. Irakaslea klase batean irudikatu du eta gela nahiko errealista bada ere, irakasle horren irudia erabat estereotipatua da. Emakumezkoa da irakasle hori eta ez gizonezkoa, zergatik ote? Irudi estereotipatu horrekin duela zerikusia pentsa dezakegu.

Astronautaren kasua, nahiz eta haur bat izan eta lanbide bat bezala ez irudikatu, kasualitatez edo ez gizonezkoa da. Lanbide bat eta aisialdi moduaren arteko bidean dago baino hala eta guztiz ere gizonezkoa da astronauta. Emakume astronautarik ikusi ez dutelako izan daiteke? Beste pertsonai guztiek bere aisialdian agertzen dira, etxetik kanpo eta ekintza finko bat egin gabe. Bakarrik grafitilaria eta surflaria zerbaitetan ari dira. Grafitia egiten ari den pertsona gizonezkoa da baita ere. Normalean gizonezkoek egiten dute hori? Egia esan patinete, grafiti eta antzekoen giroan, gehiengoek gizonezkoak dira. Baita surfaren mundua orokorrean gizonezkoek egokitzen zaie baina ikasle honek 3 neska marraztu ditu. Esan zigunaren arabera, bere burua irudikatu zuen udan surfean aritu zelako eta benetan gustuko izan zuelako.

**Emakume eta gizonek garatzen dituzten ekintzak: lehenengo ekintza jakina bereizten da (irakasten ari da, kotxe bat konpontzen ari da, egunkaria irakurtzen ari da, erosketak egiten ditu, haurra eskolara eramaten du, etxea garbitzen du...) eta**

**ondoren egoera edo ekintza hauek klasifikatu egiten dira ( tradizionalak edo ez, manualak edo intelektualak, lana edo aisia...)**

Ekintza guzti hauek klasifikatuko ditugu.

**IRAKASLEA** → Ez dago irakasten, oihukatzen baizik. Ikaslea izututa agertzen da irakaslea errieta botatzen duen bitartean. Irakastea ekintza intelektuala bezala sailkatuko genuke baina kasu honetan tradizionala ere bada. Lanbide hau erabat zaharra da eta oihukatzearekin lotzen dute haurrek, gero errealitatean horrela ez bada ere.

**ASTRONAUTA** → Espazioa ikertzen ari dira astronautek. Lana eta aisiaren erdibidean dago ekintza hau. Ez dakit ongi nola sailkatu. Izan ere, txikitatik duten ametsa da espaziora joatea. Fisikoki indartsu eta intelektuala izan behar da ere astronauta izateko.

**GRAFITILARIA** → Paretan margotzen ari da spray bat eskuan duelarik. Aisialdian egiten den zerbait bezala irudikatu dute ( Atarrabian duela gutxi izandako txapelketa batean ikusi zutelako ). Ekintza hau manuala dela esan dezakegu eta abilezia handi bat adierazten du.

**SURFLARIAK** → Surfan eta eguzkia hartzen agertzen dira. Aisian egiten den zerbait da eta baldintza fisiko onean egotea ezinbestekoa izan ohi da. Beraz ekintza fisiko eta abilezia handiko zerbaitetan ari dira.

**GAINONTZEKOAK** → Elurrarekin jolasean ari dira. Ekintza manuala da eta abilezia handirik eskatzen ez duena.

**OROKORREAN:** Eguneroko bizitza ez dute adierazten. Dena Eguberrien testuinguruan edo ez ohiko ekintzetan oinarrituta dago. Irakasle eta ikaslearen kasua izan daiteke egunerokotasunaren adierazle bakarra.

**Sinboloren bat irudikatu dute? Sinboloak mota askotakoak izan ahal dira baina guri interesatzen zaiguna, kultura bisualarenak izango dira.**

Sinboloak. kultura bisuala

- ELUR PANPINAK: Marrazki bizidunetan bezala irudikatu dituzte. Bufanda, txanoa, botoiak, aurpegia....Aipatzekoa da batzuk txanoa beharrea txapela eramaten dutela. Telebistan eta pelikuletan ikusten duten irudi hori, haien inguruko tradiziozko zerbaitekin osatu dute. Esan bezala, elur panpin hauek ez dira beraiek elurretan egiten dituztenak bezalakoak baizik eta telebistan edo iragarkietan ikusten direnak bezalakoak.

- ETXEAK: Nahiz eta haurren gehiengoa pisuetan bizi diren, eraikin altu eta apaindura gutxikoekin, haien marrazkietan etxeak txaletak bezalakoak irudikatzen dituzte. Hau ere haiek orain arte jaso dituzten irudiengatik izan daiteke, marrazki bizidunetan askotan horrelakoak agertzen direlako. Batek adibidez, Nueva York-eko eraikinak marraztu ditu. Hau ere telebistan edo pelikuletan ikusi dituzten irudiengatik marraztu dituzte. Izan ere, ikasle honek ez da Nueva York-en inoiz egon eta aurrez aurre ikusi. Hala eta gustiz ere ideia oso finkoa dute hango eraikinak nolakoak diren imaginatzean.

-NASAREN KOHETEA ETA ASTRONAUTA: Marrazki bizidunen berdina da. Beraiek telebistan besterik ez dute ikusi horrelakorik eta hala ere, atzeko aldeko inpulsoadorea nolakoak diren argi dute. Leihatila txiki bat ere egin dio, pelikuletan bezalakoak. Goiko aldeko zatia, gorri kolorekoa da, askotan agertzen diren modukoak. Horretaz gain, eta argi gelditzeko, NASA izena idatzi dio, beraiantzako espazioaren adierazle nagusia delako. Hau bera gertatzen zaio astronautari. Aurrez aurre inoiz ikusi ez duten arren, primeran irudikatu du jantzia, oxigenoarentzako hodia eta kaskoa. Telebistan ikusi dutelako irudikatu du horrela, ez da kasualidadez izan.

-ESTRALURTARRA: Marrazki berdin horretan aurkitzen ditugu estralurtarrak. Telebistan baino, haurrentzako liburuetan agertzen diren irudiei antza hartu ahal diogu. Kolore deigarriekin adieazi ditu, batez ere berdea eta morea erabiliz. Estralurtarrak berdeak izatea ez da ideia berria, askotan horrelakoak ikusi ditugu. Antena pare bat gehitu dizkio toki askotan agertzen diren moduan baita ere eta haien gorputza forma arraro batez adierazi dituen arren, bi beso, buru bakarra eta gizakien aurpegiaren bezalakoak egin dizkio. Haurrak ziurrenik imaginatzen dituen moduan irudikatu ditu baina jaso

dituen irudiek eragina izan dutela argi ikusi dezakegu. Izan ere, eta esan bezala, liburu askotako ilustrazioak antzekoak dira askotan.

-ILARGIA: Marrazki bizidunetan, askotan ilargia izaki bizidun bat bezala agertzen da. Marrazki honetan horrela irudikatu du haurrak ere, Saturno planetarekin hitz egiten duen bitartean. Aurpegia marraztu dio sudur handi bat duelarik, marrazkietan askotan gertatzen den bezala. Karikatura baten antza hartu ahal diogu baita ere.

-IZARRAK: Espazioko izarrak bost puntadun forma geometriko bat bezala irudikatzen dute askotan. Berriro ere marrazki bizidunetan eta liburuetakoko ilustrazioetan bezala irudikatu ditu. Benetako izarrak ez dute inolako antzik baina horrela ikusi dituzte haurrek beti. Beraiek badakite errealitatean ez direla horrelakoak baina irudikatzeke ezagutu duten modu bakarra da hau.

-EGUZKIA: Ilargiarekin gertatzen denaren antzeko zerbait gertatzen zaio honi. Nahiz eta suzko bola handi bat izan, esfera hori bat bezala marrazten dute gehienetan. Esferatik kanpora irteten diren zuzenki batzuk egiten dizkiote maiz. Berriro ere, honen arrazoia orain arte jaso duten irudien errua litzateke. Txikitatik irakurri dituzten liburuetakoko ilustrazioetan horrela agertu zaizkie irudikaturik.

-HODEIAK: Fenomeno atmosferikoekin jarraituz, hodeien kasua aurkituko genuke. Odeiak egunero ikusi ahal dituzten arren, forma geometrikoekin irudikatzen dituzte. Haiek ikusitako irudietan horrela agertzen direnez, hala egiten dute beraiek ere.

-PINUAK ETA MENDIAK: Eguberrietako pinu pare bat agertzen dira eta oso forma eskematiko eta geometrikoekin agertzen dira. Ez daude oso detailaturik eta zintzilik dituzten bolak, puntetan agertzen dira pinu osoan zehar beharrean. Nahiz eta beraien etxeetan horrelakoak ez izan, horrela ikusi dute beti adierazita pinua marrazkietan. Mendiekin berdina gertatzen da. Oso forma sinplea dute kurba batekin adierazita. Oso forma borobildua dute eta mendien marrazkiak bata bestearen gainean bukatzen dira mendilerroak adierazteko nahian. Hau ere, jaso duten irudietan horrela ikusi dutelako egiten dute.

-ONTZA: Marrazki bizidun baten kopia garbia dela dirudi. Begiak “manga” marrazkietan bezalakoak egin dizkio eta bere forma erabat estereotipatua dago. Kukuxumuxuren marrazkien antza handia du, oso idealizatua.

-ARRAINAK ETA LANDARE URTARRAK: Haur batek arrainak marraztu ditu baina bere forma primarioenean. Txikitan ikusten zituzten marrazkien antzera irudikatu du, erabat



sinplea eta inolako detailerik gabe. Profilez marraztu ditu eta inolako mugimendurik gabe, marra bakar batez adierazita. Irudi hauek ez dira batere errealistak, nonbait ikusi duten moduan marraztu dute beraien sormena parte hartze gutxi hartzen duelarik. Marrazki horretan bertan, itsas landare batzuk agertzen dira. Hauek bai marrazki

bizidunen eragin zuzen zuzena da, Bob Esponjaren marrazkietatik ziurrenik. Oso esanguratsuak dira horietatik ateratzen diren burbuilak. Errealitatean gasen isurketa gertatzen da batzuetan burbuilak sortuz baina beraiek ideia hori marrazkietatik atera dute. Bob Esponja horretan, itsas animaliak horrelako etxeetan bizi dira eta burbuilak mugitzen direnean edota hitz egiten dutenean agertzen dira. Berak hemen hori adierazi du.

-ROBOTA: Horrelako aparailurik ez direnez existitzen, nonbaitetik hartu duela ideia argi uzten digu lan honek. Marrazki bizidunetan baino, jostailu baten antza hartu ahal diogu. Gizaki baten gorputza eta aurpegia dauka baina laukizuzenez osatuta. Telebistan baten antza duen burua marraztu dio, gorputzaren zatirik handiena izanik.

-GRAFITILARIA: Grafitilari honek, “tribu urbana” deritzon baten parte dela dirudi. Talde honek, biserak eramaten dituzte eta grafiti, hip hop eta antzekoen mundua adierazi du. Haurrak kalean margotzen ikusi zuen mutilak, ez zeraman biserarik baina grafitien gaia tribu horrekin elkar lotu duenez, horixe marraztu dio grafitilariari. Hori telebistan ikusi duelako izan behar da, izan ere nahiz eta bera egoera bat ikusi, beste egoera estereotipatuago bat irudikatu du.

---

**Sinboloren bat agertzekotan nola daude eginak? Errealistak al dira? Zer nolako garrantiza dauka marrazkian? Zein testuingurutan dago?**

Orain arte ikusi ditugun sinbolo eta estereotipo guzti hauek, orokorrean testuinguru errealista batean agertu ohi dira. Haurrek errealitatea adierazi nahi badute ere, errealak ez diren estereotipoak erabiltzen dituzte haien marrazkietan. Adibidez, mendiak eta hodeiak irudikatzen dituztenean, haien errealitatean ikusten dituzten eguneroko gauzak dira. Izan ere, Iruñerrian, egun lainotsuak eta mendiak inguruetan izatea erabat ezaguna egiten zaigu. Beraiek hori irudikatzea haien marrazkietan beraz, errealitate bat adierazten du. Hala eta guztiz ere irudikatzeke erabiltzen duten modua ez da errealista.

Ikasle bakarra izan da mundu errealista batetik urundu den bakarra. Marrazki horretan izan da estereotipo gehien ikusi ahal izan duguna. Bere errealitatea adieraztea alde batean utzi du eta berak bere bizitzan zehar jasotako irudiak erabilia, mundu imaginario bat sortu du. Hala eta guztiz ere, bere irudipena, lehenago jasotako irudi ezberdinen multzoa da. Beraz, denek testuinguru errealista batean kokatu dituzte haien marrazkiak. Momentu horretan, haien errealitatea Gabonak zirela eta, askotan agertu dira irudikatuturik.

Beste marrazki batzuk, nahiz eta errealistan izan, bere ingurukoak ez ziren egoerak edo irudiak adierazi dituzte. Adibidez, ikasle batek New York-eko eraikinak marrazterakoan, errealitate bat irudikatu du. Errealitate hori ez da bere inguruko errealitatea eta estereotipatu dago. Beste batek, planetak marraztu ditu nahiz eta modu oso sinple eta ez oso errealista batean izan. Hala eta guztiz ere, errealitate bat marraztu du, bere hurbileko errealitatea ez bada ere. Amaitzeko eta azkeneko testuinguru orokor bezala, liburuen ilustrazioen kopiaketa edota liburu baten edukiaren marrazketa izango litzateke. Izurde eta ostadarraren marrazkia, lehiarenarekin batera, haurrentzako liburu batzuen ilustrazioen kopiaketak dira. Ametsetan dabilen lorearena aldiz, irakurritako istorio baten ilustrapena sortu zuen. Hemen laburpen baten antzera egiten saiatu zen. Ilustrazioen kopia eta sormena ere, kontutan hartzeko testuinguru bat bezala ikusi dugu.

Beste marrazki bat aldiz, ez da errealitatearen adierazle, ezta fikziozkoa ere. Ikasle batek marrazki abstraktu bat egin du zuzen anitz irudikatuz eta koadrotxoak osatuz. Hau besteengandik asko urruntzen da, izan ere nahiz eta errealismoaren etapan egon, berak inolako irudi errealistarik agertzen ez den marrazkia egin du. Bere esanetan, ez du ezer esan nahi marrazki horrek, bakarrik margoak hartu eta lanean hasi zen bere esanahian pentsatu gabe. Berak ez du testuingurua kontutan hartu eta beste lan oso desberdin bat sortu du.

Beraz, eta laburbilduz, marrazki libre hauetan irudikatutako gauza guztiak kontutan hartuta, hainbat testuinguru desberdin aurkitu ditugu, baina orokorrean testuinguru errealistak izan dira denak. Hurbileko errealitatea nabarmentzen bada ere, urreneko beste batzuk ere aurkitu ditugu. Beste batek, inolako testuingurua ez du adierazi, lan erabat abstraktua egin baitu. Bukatzeko, errealitatea eta etorkizuna nola ikusten duen ikuspegiaren nahasketa aurkitzen dugu, hau da, fikziozko irudiak azken finean.

**Marrazkiek apaindura asko dituzte orokorrean? Detaile askorekin? Zein kolore erabili dute gehien (aipagarria baldin bada)? Emakumezkoen marrazkietan egindako apaindurak gizonezkoek egindakoen berdinak dira? Desberdintasunik badago, zeintzuk dira agerikoenak?**

Marrazkiek apaindura asko dituzte orokorrean? Detaile askorekin? Zein kolore erabili dute gehien (aipagarria baldin bada)? Emakumezkoen marrazkietan egindako apaindurak gizonezkoek egindakoen berdinak dira? Desberdintasunik badago, zeintzuk dira agerikoenak?

Marrazki batzuk, adierazi nahi zutena besterik ez dute. Hau da, irudikatu nahi zutena agertzen da inolako apaindura gehigarririk gabe. Atzealdea ez dago margoturik eta kolore txuria da gehien ikusten den kolorea. Robota, elur panpinak eta lore ametsdunaren kasuak adibidez. Orokorrean atzealdea margoturik ez duten marrazkiek ez dute apaindura askorik haien irudikapenetan ere. Detaile gehien duena elur panpinena izan daiteke, haien txanoa marrazki batzuek apainduta dutelarik eta alboan agertzen den mutila hizketan agertzen delako. Hala eta guztiz ere, ez du apaindura askorik eta mutilaren aurpegian bertan ikusten da detaile asko ere ez dituela egin.



Beste marrazki batzuk, atzealdea margoturik dute baina oso modu suabeen egin dute. Hauek ez daude oso apaindurik ere eta detaileen kantitatea ere ez da oso bereizgarria. Arrainen, Surfaren eta eguberrietako paisaiaren marrazkien egoera da hau. Arrainena oso marrazki sinplea da, ez dauka detailerik ezta apaindurarik ere. Beste biek landuagoak daude, batez ere eguberrietako paisaiarena. Hemen, atzeko aldeko etxean kea ateratzen marraztu du erdian lauburu bat duelarik. Atean ere eguzki-lore bat jarri dio eta honek detaile batzuk badituela esan nahi du. Panpinen bufanda ere, marrazkiduna egin dio. Beraz esan ahal dugu, nahiz eta apaindura asko ez izan eta atzealdea oso landuta ez egon, kasu honetan detaileak badutela bere tokia eta garrantzia.

Atzealdea indarrez eta gogoz bete duten hurrek oso marrazki desberdinak egin dituzte ere. Hemen astronautaren, animaliatxoen eta elizen marrazkiak kontutan hartuko ditugu. Elizarenak adibidez, nahiz eta zonalde zuririk ez izan, oso marrazki sinplea eta detailerik gabekoa da. Animaliena aldiz, detaile gehiago ditu eta apaindurak agerikoagoak dira. Adibidez, mendien artean noria bat marraztu du eta ezker aldeko lakuari hesi bat jarri dio. Hala eta guztiz ere detaileduna astronautaren kasua lirateke. Apaindurak gehiegizkoak ez dira baina indioen edo estralurtarren tabernaren kontua oso detailaturik daude.

Azkenik, kolore beltzaren presentzia agerikoak diren marrazkiak ezberdinduko ditugu. Planeten, New York-eko, erraldoiaren, grafitilariaren eta ikastolako egoeraren kasuak ditugu hemen. Planeten kasua ez dago batere apainduta adibidez, esfera marradun sinpleak dira izan ere. Hemen kolore beltza atzealdea betetzeko erabili du, espazioa beltza baita. New York-eko marrazkia ere ez dago batere detailaturik baina eraikinek argiekin jolasten apaintzea lortu du. Erraldoiaren marrazkian detaile asko ez baditugu ere, apaindura askotako lana da. Koloreekin lortzen du hori. Nahiz eta zirriborro baten antzera margotu izana, koloreekin egiten duen nahasketa eta jolasa erabat aipagarria da. Itzalak eta sakontasunaren antza lortzen du eta bere lana oso deigarria izatea lortzen du. Bestalde, kontrako egoera ere badugu. Ikastolako egoera bat agertzen den marrazkian, detaile asko aurkitu ditzakegu (munduko bola, alfabetoa, mahai gaineko

liburuak...), baina ez dago gehiegi apainduta. Amaitzeko grafitilariaren kasua, detaile eta apainduraren arteko oreka lirarteke.

Sexuen arteko desberdintasun gehiegirik ez daudela esango nuke. Detaile eta apaingarrien kantitatea haurraren arabera aldatzen da baina ez da sexuekin zerikusia duena. Aipagarria izan den gauzarik agerikoena, koloreen erabilera izango lirarteke. Beltza kolorea nabarmenki erabili dutenen artean, bost marrazkietatik, lauk mutilenak dira. Neska bakarrak erabili du kolore beltza eta atzealdea osatzeko bakarrik egin du. Aipatzekoa izan daitekeen beste desberdintasun bat, koloreen intentsitatea eta zati zuririk gabe marraztea lirarteke. Atzealde zuria duten marrazki guztiek, neskenak izan dira eta kolore oso argiarekin betetakoak baita ere. Mutilenak berriz, kolore ilunagoak eta indar gehiagorekin zanpatuak izan dira. Esan bezala, detaile eta apaingarrien kantitatean ez dago desberdintasunik kasu honetan.

#### **4.4. Euskal Herriko adierazpena**

Oraingoan, gai bat emanda sortutako marrazkiak aztertuko ditugu. Kasu honetan gaia Euskal Herria nola ikusten zuten adierazi behar zutela paper batean izan zen. Marrazki librearekin dauden desberdintasunak ikusiko ditugu eta baita berdintasunak ere. Norainoko diferentziak egongo dira?

**Nor irudikatzen dituzte haurrek marrazkietan? Emakumeak, gizonak edo talde mistoak dira? Neskek egindako marrazkietan emakume gehiago agertzen dira? Eta mutilenetan? Pertsona gazteak, nerabeak, helduak edo haurrak agertzen dira?**

Aurreko marrazkietan baino gizaki gehiago irudikatu dituzte orokorrean. 23 lan ditugu aztertzeko eta hauetatik 21 marrazkik ez dute izaki bizidunik adierazi haien marrazkietan. Beste hiru ikaslek bakarrik animaliak irudikatu dituzte eta beste guztiek pertsona desberdinak. Neska batek "Mari"ren irudia marraztu du, baina pertsonaia mitologikoa denez, ez dugu kontatuko gizaki biziduna bezala denik. Beraz, hori kontutan hartuta, gizakiak agertzen diren marrazkien artean (17 lanetan), hirutan bakarrik gizonezkoen irudiak agertzen dira. Beste lautan bakarrik emakumezkoak eta beste guztietan emakumeak zein gizonezkoak agertzen dira. Emakumezkoak soilik

agertzen diren marrazkiak, neskek egindakoak dira eta gizonezkoak soilik irudikatu dituztenak aldiz mutilak. Nabaritu dut nahiz eta marrazkietan bi sexuak irudikaturik agertu izana, batzuetan taldeak daude beraien artean, neskak alde batetik eta mutilak beste aldetik. Adibidez, joaldunak beti gizonezkoak dira, baita artzainak ere. Kasu batean, joaldunak eta gaita jolea kalean dabiltza, gazteluan emakumea dagoen bitartean. Eta beste kasu batean, emakumezkoa ibaiaren alde batean dago eta artzaina (gizonezkoa) beste aldean.

Aurrekoan ez bezala, oraingoan adin ezberdinetako pertsonak ageri dira maiz. Ziurrenik, helduek egitez duten ekintzak agertzen direlako izango da. Ekintza kulturalak adierazi dituzte maiz eta normalean, egoera kultural hauek, helduek prestatzen edo parte hartzen dute. Horregatik, beraien marrazkietan hori bera islatzen da. Joaldunen gehiengoak helduak dira, baita herri kirolean aritzen direnak, dantzariak, artzainak, pailazoak, zizak jasotzen dituen gizona... Haurrak jolasean agertzen dira gehien bat ekintza horietan parte hartzen baino.

**Nork du protagonismoa? Irudi batean, protagonista planoan hartzen duen garrantziarengatik (tamaina, jarrera...) identifikatu ohi da. Zein frekuentziarekin agertzen dira gizonak bakarrik eta emakumeak bakarrik? Zeinekin banatzen dute protagonismoa gizonak? Zeinekin emakumeak?**

Marrazki hauetan protagonismoa orokorrean gizakiek izaten dute, baina hala eta gustiz ere batzuetan sinbolo kulturalak edota paisaiak berak hartzen du garrantzia. Gizonak eta emakumezkoak agertzen diren marrazkiak aztertuz, bi lehentasun puntu desberdin bereiztu ahal ditugu. Alde batetik, gizakiak berak daukaten marrazkiak daude eta bestalde sinboloek dutenak. Hamar lanetatik, hiruk sinboloek daukate garrantzi gehien. San Ferminen marrazkian, goiko aldean eguzki-lore, ikurrina eta lauburu erraldoi bat agertzen dira. Hemen nahiz eta lehenbiziko planoan ez egon, bere tamainarengatik arreta sinbolo horiek jasaten dute. Beste bi marrazkietan ere gauza bera gertatzen da, nahiz eta lehenbiziko planoan gizakiak agertu, sinboloek hartzen dute garrantzia bere tamainarengatik.

Gizakiak garrantzia duten marrazkietan, batzuetan sinboloak irudikatu dituzte ere baina ez dute aurrekoetan bezainbesteko garrantzia. Gizakiak garrantzia hartzen dutela argi dago, izan ere gehienetan lehenbiziko planoan egoteaz gain, paisaia eta eraikinak baino handiagoak izaten dira. Adibidez dantzari bikotearen kasuan, alboko etxea oso txikia da konparazioan, edo frontoian agertzen den neskaren marrazkian, bera frontoia baino handiagoa irudikatu du. Baserri osoa marraztu duen neskaren kasuan, plano desberdin asko nabarmentzen dira. Gizakia hartzen du garrantzia lehen planoan agertzen direlako baina kasu honetan tamainaren kontua ez du zerikusirik. Lan honetan, proportzioak oso ondo mantendu dira, urruntasuna eta sakontasuna kontutan hartu du adibidez. Etxea urrun dagoenez, txikiagoa agertzen da baina baita atzealdean agertzen diren gizakiak ere txikiagoak marraztu ditu. Tamaina handiagoa duen gauza bakarra, mendi tontorreko ikurrina lirateke. Bere tamaina handia bada ere, ez du arreta guztiz deitzen.

Sexuen arteko diferentziak ez dira agerikoak. Bat ez da bestearen gainetik irudikaturik agertzen, plano berdinean agertzen direlako orokorrean eta tamaina berdina dutelako beti. Kasu batean, emakumea gazteluaren barnean agertzen da. Emakume bakarra irudikatu du eta leihotik agurtzen ageri da. Marrazki honetan, gizonetakoek dutela garrantzia esan dezakegu, izan ere lehenbiziko planoan agertzen dira eta beraien tamaina emakumearena baino handiagoa da. Ardiak ere marraztu ditu eta oso desproporzionaturik daude, gizonak baino askoz txikiagoak dira eta. Hemen emakumea bigarren plano batean agertzen da, apaindura bat balira bezala. Beraz, eta laburbilduz, bi sexuak agertzen diren marrazkietan, bi arreta puntu desberdin daude, gizonek edo sinboloek hartzen dutena. Gizonen kasua, sexua ez du garrantzirik, bakarrik kasu batean detektatu dezakegu horrelako adibide bat.

Gizakiak agertzen ez diren lanetan, batzuetan animaliak irudikatu dituzte. Marrazki hauetan, protagonismoa ez dute beti animaliek hartzen baizik eta batzuetan apaingarri edo gehigarri bezala. Hiru lan ditugu animaliak baino gehiago agertzen ez direnak. Batek, eguzkian jarri du arreta gehien, izan ere izugarrizko tamaina dauka. Etxe txiki bat, zubi handi bat eta oso suabe marraztutako arditxo txikiak adierazi ditu. Hemen, nahiz eta atzeko aldean egon, eguzkiak hartzen du protagonismoa, eta bigarren tokian

zubiak. Beraien tamainarengatik izango litzateke hau guztia. Animalien presentzia beraz, ez da beraiek marrazkiaren arreta direlako baizik eta gehigarri bat bezala direlako. Errepide bat irudikatuta dagoen lanean, animaliak bigarren plano batean agertzen dira berriro ere. Etxeak, errepidea eta paisaia da garrantzia duten irudiak lehenbiziko planoan eta paperaren erdialdean kokatuta daudelako. Animaliak behealdean eta eskuinaldean agertzen da, izkina batean. Hori eta animalien tamaina eta erabilitako koloreen intentsitatea lortzen du bigarren plano horretan gelditzea. Animalien artean deigarriago da txakurraren irudia ardiarena baino. Hor desberdintasun bat agerikoa da, izan ere intentsitate gehiagoz marraztu du eta ardiak baino tamaina handiagokoa da. Gainera, txakurrak onomatopeia bat sortzen du komikien bokadilo batean eta horrek ere gure arreta deitzen du. Azkeneko marrazkian, animaliak hartzen dute protagonismoa etxearekin batera. Lehenbiziko planoan daude eta etxea atzeko aldean, baina hala eta guztiz ere, etxeak daukan koloreengatik eta tamainarengatik, protagonismoa banatuta ikusi ahal dugu.

**Emakumeak eta gizonak irudikatzeko zein irudi mota erabiltzen dira? Irudi errealistak, marrazkiak, marrazki eskematikoak...**

Marrazki librearen kasuan bezala, ikasleak errealismoaren etapan daudenez, errealitatea adierazten saiatzen dira gehienetan. Oraingoan gaia zehaztuagoa dagoenez eta gaia Euskal Herriaren adierazleak irudikatzea izan denez, errealismoaren agertzea normalagoa da. Askotan, euskaren aldeko festa baten antza duten egoerak irudikatu dituzte, Sortzen edo Nafarroa Oinezan antzekoak. Joaldunak, baserriak, dantzariak, mendiak, frontoiak... Errealismotik aldentzen den adibideak ere badaude hala eta guztiz ere. Mari (euskal mitologiaren pertsonaia bat) irudikatu du ikasle batek adibidez. Ez da bere sormeneko irudikapen bat baizik eta liburu edo marrazki bizidunen batean ikusitako ilustrazio baten kopiaketa. Fikziozko irudia bada ere, ez da oso aipagarria arrazoi horrengatik, berak sortutakoa ez delako. Gauza bera gertatzen da irudikatutako sorginekin. Ikasle bat baino gehiagok, sorginak marraztu dituzte eta erratzarekin hegan daude. Hau ere egoera errealista bat ez bada ere, mitologia eta ohitura zaharren arabera marraztu dute.

Errealismotik urruntzen den beste detaile bat, animalien pertsonifikazioa izan liteke. Kasu bakar batean gertatzen bada ere, aipagarria dela esango genuke. Gazteluaren marrazkiak daude irudikaturik ardi hauek. Ardi hauek bokadiloen erabilerarekin hitz egiten dute, komikietan bezala. Ardiek esaten dutena zera da, “aupa” eta “Euskal Herria”. Ardien irudikapen hauek, ez dute gizakien aurpegirik baina hala eta guztiz ere pertsonak bakarrik duten ahalmena dute haiek. Fikziozko egoera dela esan ahal dugu beraz. Ardiak eskematikoak badira ere, hitz egitearen ahalmen ematea ez da ardiek heroizatu nahi dituelako. Horren arrazoa, Euskal Herriaren goraiatzeko modurik errazena dela da. Esaldi aske bat jarri beharrean, ardiei egokitu die animozko hitz horiek. Beraz, bere helburua ez da ardiak goraiatzea, Euskal Herria goraiatzea baizik. Laburbilduz, marrazki guztiak errealitatearen adierazleak izan nahi direla esan dezakegu. Salbuespenak oso gutxi dira eta gainera ez oso konbentzigarriak, izan ere ideia bat adierazteko edo mitologiaren irudikapen bat delako egin dute.

**Irudikatuak izan diren gizon eta emakumeen irudi fisikoa, haien adierazpena, espresioa eta nolakotasunaren azterketa; ze arropa mota daramate, aldaera desberdinak agertzen dira edo estereotipatuak dira? Espresioan sentimenduak islatzen dira (Oldarkortasuna, lasaitasuna, gozotasuna...)?**

Aurreko lanekin konparatuz, gizaki askoz gehiago irudikatu dituztenez, aniztasuna ere zabalagoa da. Adin ezberdineko gizakiak egin dituzte eta baita beraien artean oso desberdinak diren pertsonak ere. Emakumezkoak ez dira denak ile horiak eta arropa estereotipatua daramatenak, baizik eta kolore guztietako ileak aurkitu ditzakegu eta haien arropak denetarikoak dira baita ere. Kolore desberdinetako arropak, gonak zein prakak, arropa modernoa, tradizionala... adierazi dituzte kasu honetan. Gizonezkoen adierazpenarekin berdina berdina gertatzen da. Aniztasun handia aurkitzen dugu, modernoak direnak, tradizionalak, koloreen aniztasuna... Beraz, esan dezakegu geroz eta gizaki gehiago irudikatu, geroz eta aniztasun gehiago aurkitu dezakegula.

Aldiz, pertsonai hauen adierazpen mailari dagokionez, askoz eskasagoa da nahiz eta adibide gehiago egon. Irudikatutako gizaki guztietatik bakar bat ez dauka irribarre bat ahoan. Lurrera erortzen irudikatu duenez, triste aurpegia jarri dio marra kurbatu simple

baten bidez. Beste marrazki guztietan agertutako pertsona bakoitza, irribarre oso eskematiko bat erabiliz pozik daudela adierazi dute. Beraien begiak ere askotan beste marra pare batekin irudikatu dituzte haien poztasunaren beste adierazle bat bezala. Begiak itxiak dituzte irribarrea ezin handiagoa delako. Beraz, hemen ondorioztatu dezakeguna zera da, Euskal Herriaz ari garenean, beraientzat poztasunaren sinonimoa dela. Marrazki librearen kasuan, edozein egoera adierazi ahal zutenez, ez zuen zertan egoera zoriontsu bat izan behar baina gaia zehaztu eta gero hau izan da gertatutakoa. Beste gai desberdin bat aukeratu bagenu, gustuko ez zuten bat adibidez, ziurrenik denek triste aurpegia izango lukete. Triste agertu den irudi bakarra, mutil batena da, zezen baten aurrean korrikatu eta gero erori delako. Tristetaren irudi bakarra mutil batena izatea ez da esanguratsua kasu honetan, beste guztietan berdina adierazten dutelako. Hala ere aurreko adibidean bezala (marrazki librearena), estatistikoki, gizonezkoek adierazgarriagoak edo sentimendu desberdin gehiago adierazteko gai dira emakumezkoak baino.

**Adina, klase soziala, etnia, gaitasun fisiko eta intelektual desberdinek eskaintzen duten emakume eta gizon aniztasuna irudikatzen da?**

Lehen aipatu dugun moduan, adin ezberdinetako pertsona anitz marraztu dituzte gai honetan. Marrazki librean ez bezala, jende heldua eta beraiek baino txikiagoak diren haurrak ere irudikatu dituzte. Pertsonaia helduen adibideak lehen aipatu ditugu, hala nola joaldunen gehiengoa, herri kirolean ari diren gizonezkoak, zizak biltzen dituen gizona, pailazoak, haurrak laguntzen dituzten gurasoak... Eramaten dituzten arropak ez dira oso bereizgarriak, batez ere desberdintzen diena haien tamaina da. Haurrak helduak baino askoz txikiagoak irudikatzen dituzte eta kasu batean, hau oso txiki bat irudikatzeko, piruleta erraldoi bat jarri dio eskuan. Detaile horrekin, bere tamaina txikiagoa izateaz gain, bere adina desberdintzea lortzen du. Zaharragoa den gizon bat ere irudikatu dute adibidez. Adinduagoa dela adierazteko bizarra luze bat egiteaz gain, esanguratsuen bastoi bat eskuan jarri diola izango lirateke. Honekin, nahiz eta arropa bereizgarriarik edo zimurrik ez izan, badakigu pertsona zaharrago bat dela. Gizon adindu honek, bere familiarekin batera festan ari da.

Nahiz eta aniztasun gehiago egon adinen kontuan, haurren irudiak agertzen dira gehien bat. Honen arrazoia berdina izango lirateke, adin honetan oraindik nahiko egozentrikoak direla eta batez ere haien errealitatea adierazi nahi dutela. Errealismoaren etapan egotean, beraiek ezagutzen duten errealitatea adierazten dute bere enpatia maila oraindik ez delako erabatekoa.

**Pertsonai maskulino eta femeninoak agertzen diren testuinguruari erreparatuz, etxean edo lan ordaindu bat egiten ari da? Beste pertsona bat zaintzen dago? Aisialdi gune batean agertzen da pertsonaia?**

Haurrak irudikatzean, gehienetan jolasean egiten dute, bai baloiekin, frontoian, kometa batekin edo dena delakoarekin. Beste batzuetan, bakarrik irudi estatikoak dira edo hitz egiten agertzen dira Euskal Herriari buruzko mezuak bidaliz. Azkeneko batzuk, ekintza kulturaletan parte hartzen irudikatu dituzte. Dantzari batzuk edo joaldun batzuk adibidez, haurrak dira. Beraiek egiten dituzten ekintzak dira orokorrean, izan ere, ez da kasualitatea joaldunak diren haurrak marraztu dutenek, beraiek ere bizitza errealean, horretan aritzen direnak izatea. Berdina gertatzen da haur dantzariak marraztu dituztenekin, beraiek klasetik kanpo dantzako klasetara joaten direlako. Beraz, orokorrean, haur bakoitzak bere errealitatea marraztu du eta haurrak paperean irudikatzean, beraientzako arruntak diren ekintzetan marraztu dituzte. Haurren kasuan, sexuen arteko diferentziarik ez dugu aurkitze, izan ere mutilak neskekin jolasten dute, mutilak zein neskak dantzan ageri dira... Ez dute nesken edo mutilen ekintzak desberdintzen eta adibidez, neska bat frontoian jolasten irudikatu dute nahiz eta orokorrean, telebistan agertzen denaren arabera, gizezkoen kirola izan. Beraz, esan dezakegu hurrei buruz duten ideia ez dela sexista edo gutxienez, estereotipo gutxiagorekin. Helduei buruz duten ideia agian bai estereotipatuagoa izango da.

Helduak adierazterakoan aldiz, askotan lanean edo ekintza kulturaletan parte hartzen agertzen dira. Artzainak, herri kiroletan, joaldun bezala, dantzariak edo zizak jasotzen irudikatu dituzte gehien bat. Irudikatu duten beste egoera bat, haurrak laguntzen edo irudi estatikoak bezala izango litzateke. Lehen aipatu dugun Nafarroa Oinez bezalako festetan birgogoratzen dizkiguten egoeretan, bere seme-alabekin agertzen dira



konpainia egiten besterik gabe. Beraz, lanean zein aisialdian marraztu dituzten arren, gehienetan lanean edo ekintzaren bat egiten agertzen dira.

Lanean adierazi dituzten pertsonak orokorrean gizonetzkoak dira. Joaldunak gizonetzkoak dira, artzainak gizonetzkoak dira, herri kirolean aritzen direnak baita ere... Emakume helduen irudikapenak bakarrik festa antzeko horietan parte hartzen agertzen dira. Beste bat gaztelu baten barruan marraztu du ikasle batek. Gizonak kalean dauden bitartean, emakume bakarra ageri da eta etxearen barruan dago. Honen beste adibide bat daukagu, mutil eta neska bat kalean dantzan ari diren bitartean, ama bat ageri da etxearen barruan leihotik begira. Marrazki konkretu batean (anbulantzia agertzen denean), haur batzuk agertzen dira festa batean eta beraiekin bi heldu irudikatu ditu bakarrik, emakume bat eta gizon zaharrago bat. Beraz, ondoriozta dezakegu helduei buruz ari garenean edo irudikatzen dituztenean, estereotipo gehiago ageri direla eta sexuen arteko diferentzia handiagoa bihurtzen da. Hala eta guztiz ere, salbuespenak ere badaude. Frontoian jolasten ari den neskaren marrazki beran, paperaren txoko batean, aita bat bere alaba txikiarekin jolasean irudikatu du. Zezenen aurrean korrikatzen duen neska bat ere marraztu dute. Hori, oso adierazgarria da, izan ere, San Ferminetan zezenen aurrean dabilzan emakumezkoen kopurua oso baxua edo deusezkoa da. Neska batek egin du marrazki hori eta nire burua marraztu nahi izan du. Bere hitzetan, ni oso ausarta naizelako marraztu nau zezenen aurrean nahiz eta berak jakin ez dudala horrelako gauzarik egin. Beraz, nahiz eta gizonetzkoen eta emakumezkoen ekintzak nahiko desberdindurik agertu helduen irudikapenen kasuan, salbuespenak ere aurkitu ditzakegu.

**Emakume eta gizonetzkoen garatzen dituzten ekintzak: lehenengo ekintza jakina bereizten da (irakasten ari da, kotxe bat konpontzen ari da, egunkaria irakurtzen ari da, erosketak egiten ditu, haurra eskolara eramaten du, etxea garbitzen du...) eta ondoren egoera edo ekintza hauek klasifikatu egiten dira ( tradizionalak edo ez, manualak edo intelektualak, lana edo aisia...)**

Lehen aipatu ditugun ekintza edo lan horiek aztertuko ditugu. Hasteko gizonetzko helduek egiten ari diren ekintzak landuko ditugu. Esan bezala, joaldun bezala agertzen

dira askok, hau da, esfortzu fisiko nahikoa egin beharreko egora bat. Baita artzain bezala lan egiten duten batzuk irudikatu dituzte. Lan hori egiteagatik dirua jasotzen duten egora bat marraztu dute eta baita herri kiroletan aritzen direnak ere. Hau aisialdi edo lan bezala interpreta dezakegu baina dena den, esfortzu fisiko izugarria egin beharreko lana da. Emakumezko helduek aldiz, etxe baten barruan edo haurrak zaintzen ageri dira . Dantza egiten dauden emakume batzuk ere adierazi dituzte baina bat bera ere ez du lan ordaintzaile bat egiten.

Haurren kasuan eta lehen azaldu dudan moduan ere, hurrek egiten duten ekintzak ez dute sexuaren arabera desberdintzen. Neskak mutilekin jolasean irudikatu dituzte, neskak frontoian jolasean ageri dira, euskal jaian neskak zein mutilak festan aritzen dira... Beraz, haurren kasuan, bere lana jolastea da eta genero desberdintasunik ez dira ageri. Helduen kasuan berriz, lan fisikoak gizonezkoei egokitu dizkiete eta haurren zaintzea edo etxeke lanak emakumezkoei.

**Sinboloren bat irudikatu dute? Sinboloak mota askotakoak izan ahal dira baina guri interesatzen zaiguna, kultura bisualarenak izango dira.**

